

IRAK: Asko kostata lortutako eskubideei uko egitera behartuta daude emakumeak > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zer abestuko ote dute biharko ikastoletan?

IÑAKI ALTUNA > 3

2014ko apirilaren 5a | VIII. urtea • 360. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

BERMEO, URTEA ETXEAN BEZALA SENTITU GABE

> 17 Aritz LOIOA | ARGAZKI PRESS





Irak, emakumeen eskubideek atzera egin duten herrialdea 03

Errusiatik Argentinara ihesi joan den bikote homosexuala 07

Nondik datoz sagardotegietako haragia eta arraina? 12

Bermeoko sutea, urtebete etxean bezala sentitu gabe 17

e.lkarrizketa: Isabel Alba Rico 22

Maitasun erromantikoa versus maitasun askea 26

In Fraganti: Jon Irazu 28



SINADURAK:

09 **Ruben Sanchez:** Europa astindu!

10 **Eleno Alkain eta Saioa**

Aginako: Gorputz kalakariak

11 **Iñaki Altuna:** Zer abestuko ote dute biharko ikastoletan?

20 **Beñat Gaztelumendi:** Bidexka

21 **Koldo Almandoz:** Zunzunzitoa

25 **Antton Izagirre:** Batera

27 **Naiara Garzia:** Lehentasunak

31 **Unai Gorrotxategi:**

Neutraltasunaren mugak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN, KULTURAREN ENPREHENTZAREN
GINTZA LAGUNTZA HEDABIDEA

{ txostena } Haifa Zangana

«IRAK BERRIA»

Asko kostata lortutako eskubideei uko egitera
behartutako emakumeen herrialde arabiarra

Orain hamaika urte, 2003ko apirilaren 5ean, AEBetako tropak Bagdad Irakeko hiriburura sartzeko prest zeuden. Martxoaren 19an hasitako inbasioa bukatzeaz zegoen, eta erasotzaileek aurreikusi baino okupazio gogor eta tragikoagoa hasi zen. George Walker Bushen Gobernuak beste bederatzi estaturen laguntza izan zuen eraso egiteko: Britainia Handia, Estatu espainola, Italia, Australia, Polonia, Filipinak, El Salvador, Kazakhstan eta Dominikar Errepublikak.

Horiei guztiei leporatu diezaiekegu herrialde arabiarrek hamarkada asko atzera egin izana. Emakumeen egoeraren bilakaera da esanguratsuena. Gauzak nola dauden ulertzeko, ezinbestekoa da Haifa Zangana idazle irakiarrak urtarrilean Bruselan, Europako Parlamentuan, emakumeen egungo egoerari buruz eskainitako hitzaldia, orrialdeotan laburtu duguna. Okupazioaren aurkako Nazioarteko Sareko kide da egun Zangana. 1970eko hamarkadan, bera Irakeko Alderdi Komunistako kide gazte bat besterik ez zela, Saddam Husseinen Gobernuak atxilotu egin zuen. Britainia Handira 1976an iritsi zen, baina ez du inoiz Irak ahaztu: idatzi dituen eleberri guztiak bere herrialdeari buruzkoak dira.

«Irakeko Berri Agentzia Nazionalak urtarrilaren 24an jakinarazi zuen bezperako bonbardaketak 4 hildako eta 32 zauritu eragin zituela, umeak eta emakumeak barne. Eta hilaren 23ko Fallujaren aurkako bonbardaketak 5 hildako eta 14 zauritu eragin zituela, gehienak umeak eta emakumeak. Fallujako erietxea



Emakume bat hauteskunde txartel baten aurrean pasatzen. Ali AL-SAAD | AFP

ere bonbardatu zuten. Irakeko Gobernuak Al Anbar probintziaren aurkako erasoarekin jarraitzen du. Malikik agindutako zigor kolektiboari 'Mohammed Martiriarengatik Mendekua' deitu zioten», hasi zuen hitzaldia idazleak.

«Al Anbar probintziako Falluja eta Ramadi hirietatik 65.000 pertsonak egin zuten ihes aste hartan, UNHCR Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak eskainitako datuen arabera. Irakeko Lekualdatze eta Migrazio Ministerioak jakinarazi du iaz hasitako borroketan 140.000 herritar etxerik gabe geratzea eragin dutela. Horiei erantsi behar zaizkie beren etxeetatik ihes egin eta Iraken jarraitzen duten beste 1.130.000 pertsonak. Orain Bagdaden bertan eta Diyala eta Ninive probintzietan bizi dira gehienak. Nazio Batuek esan dute pertsona horiek etsita daudela, itxaropenik gabe, eta janariak, laguntza sanitarioa eta beste gauza asko behar dituztela. Segurutasunik ez dagoenez, orain aste batzuk ihes egindako familia askok berriz ihes egin beharra izan dute», deskribatu zuen azken urteotako egoera.

«Zergatik ari naiz kontu horietaz hizketan, eta ez emakumeak jabetzeko neurrien edota genero berdintasuna lortzeko tailerren inguruan? Emakumeen arazoak beren osotasunean aztertzeko eta proposamen politiko baliagarriak egin ahal izateko emakumea ezin delako ulertu gizartetik kanpo dagoen zerbait bezala, gizarte horren zati bezala baizik, gizonarekin batera. Utz iezadazue txostena irakurtzen jarraitzen», esanez esplikatu zuen bere hitzaldiaren norabidea. «Ihes egindako pertsona askok ez dute dirurik janaria erosi ahal izateko, ezta euria hasten duenerako arropa egokirik ere, umeak ez dira eskolara

65

Al Anbar probintziako Falluja eta Ramadi hirietatik 65.000 pertsonak egin zuten ihes aste hartan, UNHCR Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak eskainitako datuen arabera. Irakeko Lekualdatze eta Migrazio Ministerioak jakinarazi du iaz hasitako borrokek 140.000 herritar etxerik gabe geratzea eragin duela. Horiei erantsi behar zaizkie beren etxeetatik ihes egin eta Iraken jarraitzen duten beste 1.130.000 pertsonak

joaten eta baldintza sanitarioak negargarriak dira, emakumeentzat batez ere. Iheslarien sufri-mendua ez da bakarrik etxea galdu izanak eragindakoa: au-zoa, komunitatea, eskolak, osa-sun zerbitzuak eta familiak ematen duten segurtasun sen-tsazioa ere galtzen dira egungo Iraken etxea uztean. Gainera, nortasun berria eraiki behar da. Galera horiek sekulako beldurra, depresioak, antsietatea eta trauma ondoko estresa eragiten di-tuzte. Bizirik ateratzeko ezinbes-teko diren gauza oinarritzkoenak ere kaltetzen ditu emakumeen egoerak atzera horrenbeste egin izanak», esan zuen idazleak par-lamentariaren aurrean.

Irak AEBek eta aliatuek inba-ditu zutenetik herrialde hartan nagusitu den indarkeriaren bik-timetako bat emakumeen esku-bideak izan dira: «Horrenbeste-ko indarkeriarekin, asko kostata lortutako eskubideei ere uko egin beharra izan dute irakiar emakumeek: lana, mugimendu askatasuna, poligamia deusezta-tzea, hezkuntza eskubidea eta osasun zerbitzua. Eskubide ho-rien alde aritu beharrean, be-raientzat eta etxekoentzat babe-sa bilatzera behartu dituzte».

Irak inbaditu eta okupatu au-rretetik, bertako hezkuntza, osa-sun sistema, industria, azpiegi-turak eta garapen teknologikoa beste herrialde arabiarretakoak baino askoz ere hobeak ziren. Orain, aldiz, Zanganak deskriba-tutako miseria eta beldurra bai-no ez daude herrialdean. Horixe lortu zuen AEBen eta aliatuen erasoak. «Atzerapauso ikaraga-rria» izan da okupazioa emaku-mearentzat, batez ere bi arlotan: segurtasuna eta nazioarteko printzipioak errespetatuko di-tuen justizia sistemari dagokio-na, eta horrek eragiten du ema-kumeen zein gizonen eskubi-deak hain erraz bortxatzea; eta beste arloak eremu publikoko genero indarkeriarekin zerikusi handia du, eta hori oso garran-tzitsua da batez ere gerra eta okupazio egoeretan, gatazka ar-matuetan, bortxaketarako, gehiegikeria sexualetarako eta gizon zein emakumeen saleros-ketarako testuinguru egokia es-

kaintzen duelako.

INTENTSITATE TXIKIKO GERRA

«Irakek intentsitate txikiko ge-rra jasaten jarraitzen du. 2013an 9.500 zibil hil zituzten. Bizitza eskubidea eta segurtasun fisi-koa dira intentsitate txikiko ge-rra horren lehen biktimak. Ge-rra horrek emakumea kaltetzen du, zuzenean edo zeharka (etxe-ko gizona hiltzean familiaburu bihurtzen dira). Gerrak eta oku-pazioak milioi bat irakiar baino gehiago hil dituzte, eta beste ho-rrenbeste alargun eta bost mi-lioi inguru umezurtz eragin di-tuzte».

«Hilero, azken egunean, **alar-gunak** gizarte laguntzarako bu-

legoetan ilaran jarrita egoten di-ra, beren eskariak egiteko edo normalean berandu iristen di-ren laguntzak kobratzeko zain. Klean leku batetik bestera ibil-tzen dira artikulu merkeak sal-duz, edo meskita eta beste era-kunde erlijiosoen sarreran jartzen dira, leku horietan bana-tzen diren mantak, arropa eta janaria lortzeko itxaropenare-kin. Eskale bihurtu diren ema-kumeen fenomeno asko hazi da Iraken. Gobernuaren eran-tzun bakarra izaten da emaku-mea atxilotzea eta kartzelara sartzea, sufrimendu hori saihes-tuko lukeen konponbidea aurki-tu beharrean. Alargunari ema-ten zaion laguntza 85 dolarre-

takoa da, batez besteko soldata 210 dolarretakoa denean.

«**Lanari** dagokionez, sektore pribatuko langileen %2 baino ez dira emakumeak. Etxe askotan, %10ean, emakume bat da fami-liaburu: alargun, dibortziatu edo banandutako emakume bat, edo gaixo dagoen senarra zaintzen duen emakumea. Gizartearen sektorerik ahulena osatzen dute, pobrezian bizi dira eta ez dute behar adina jaten. IKN erakunde-aren txosten baten arabera, ema-kumeen %14k egiten dute lan, edo lana bilatzen saiatzen ari di-ra. Gizonen artean, %73k. Lanean ari diren gehienak nekazariak di-ra eta tituluren bat duten emaku-meei gehiago kostatzen zaie lana

Orrialde honetako irudian, Jaafari Legearen aldeko pankarta bat. Hurrengo orrialdean, emakume bat alaba txikiarekin.

AFP



aurkitzea: batxilergo titulua duten emakumeen %68k ez dute lanik. Emakumeen egoera halakoa den bitartean, astero 800 milioi dolar legez kontra ateratzen dira herrialdetik, irakiar guztiak behar oinarritzkoenak ase ezinik geratzen direla».

«**Heriotza-zigorra.** Exekuzio gehien egiten diren herrialdeen artean dago gaur egun Irak. Uste da 1.300 irakiar daudela heriotzako korridoreetan, horietako batzuk emakumeak. Exekuzio batzuk ezkutuan egiten dira. Egungo legediaren arabera, 48 delitu zigortzen dira heriotzarekin. 2013an 169 pertsona exekutatatu zituzten, AEBek herrialdea 2003an okupatu zutenetik kopururik handiena. Exekuzio gehien egiten dituzten herrialdeen sailkapenean, hirugarren lekuan dago Irak, Txina eta Iranen atzetik. Iraken azken bolada honetan exekutatutako pertsona guztiei terrorismo delituak leporatu zitzaizkien, 2005eko Lege Antiterrorista dakroniarren arabera».

«Navi Pillay Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi komisarioak Irakeko justizia sistema hiltegian abereei emandako tratuarekin alderatu zuen. Erantsi zuen sistemak akats gehiegi dituela heriotza-zigorra berme guztiekin ezartzeko, eta egoera larriagotzen da aldi berean dozenaka exekuzio ezartzen direnean. Bere ustez, heriotza-zigorrak indarkeria murrizteko lana kaltetzen du. Gizon zein emakumeek torturak, gehiegikeria sexualak, bortxaketa mehatxuak eta benetako bortxaketak jasan izaten dituzte».

«Exekuzioen ondorioak, eta gizon asko beraien aurkako kargurik gabe eta epaiketarik egin gabe denbora askoan edukitzea, kasu askotan etxetik oso urruti dauden espetxeetan, katastrofikoak da emakumeentzat, familia aurrera ateratzeko zama guztia beraien gainean geratzen baita».

«**Hezkuntzari** dagokionez, Oxfamek 2007an argitara eman zuen txostenaren arabera, Irakeko umeen %92k arazoak dituzte ikasteko garaian. Eskola gehienak baldintza penagarrietan daude ustelkeriaren eraginez.



169

Egungo legediaren arabera, 48 delitu zigortzen dira heriotzarekin. 2013an 169 pertsona exekutatatu zituzten, AEBek herrialdea 2003an okupatu zutenetik kopururik handiena

Komun egokirik ez dute, eta hori oso kaltegarria izaten da, batez ere neskentzat. Gurasoei kosta egiten zaie umeak eskolara bidaltzea, eraso militarren eta segurtasun ezaren eraginez. Pobrezia, eskola urruti egotea, garrariorik ez izatea eta umeek etxean lan egiteko dagoen beharra erantsi behar dira».

«**Goi mailako hezkuntzari** dagokionez, 400 irakasle bahitu eta erail izanak eragin du milaka irakasle herrialdea utzi izana. Kualifikaziorik ez duten irakasleek hartzen dituzte lanpostu horiek,

titulu faltsuak aurkeztuta. Sekta- ren eta Gobernuarekiko leialtasunaren araberrako mesedeak izaten dira lanpostu horiek. Ondorioz, hezkuntza oso kalitate eskasekoa izaten da, eta ikasleek emaitza txarrak lortzen dituzte».

«**Emakumeak eta politika.** Irakeko Konstituzioaren 47. artikulua bermatzen du Parlamentuko diputatuaren %25 emakumeak izatea. Feministek zein nazioarteko komunitateak txalotu izan dute kuota hori, 'Irak Berriaren lorpen handia' delakoan. Egia esan, kuota horrek ez du

9 URTEKO NESKEN DIBORTZIOA ETA ETXEKO BORTXAKETA

Haifa Zanganak bere hitzaldian margotu zuen egoera larritu dezake aurki Jaafari Legeak, umeen ezkontza eta ezkontza bortxaketa legeztatuko dituelako, aurkariak nabarmendu dutenez. Gaia mahaiaren gainean apirilaren 30ean egingo diren hauteskundeetan aurretik jarri denez, begirale batzuek adierazi dute Nuri al Maliki lehen ministro xiitaren maniobra bat besterik ez dela Ministroen Kontseiluak otsailaren 25ean onartutakoa, hauteskundeetan ondoren Fadhila indar xiitarekin koalizioa egin ahal izateko. Edonola ere, legea indarrean sartuz gero, ikaragarritzko atzerapausoa izango litzateke emakumeen eskubideei dagokionez, eta erlijioen araberrako tentsioak gora egingo luke. Legearen artikuluetako batek baimentzen du bederatzi urtetik gorako neskek dibortziaztea. Beraz, adin horretatik beherako neskei ezkontzeko aukera ematen die. Beste artikulua batek emakumea behartzen du senarrarekin harreman sexualak izatera, gizonak eskatzean. Ezkontza bortxaketa legeztatzen duela diote legearen aurkakoek. Aldekoek esaten dute egungo Iraken ohikoa dena legeztatzea besterik ez dela beraien helburua. «Legearen nahia da erlijio bakoitzak arautzea eta antolatzea gauzak bere fedearen araberrak», adierazi zuen Ammar Toma Fadhila alderdiko diputatuak.

2013

Irakek intentsitate txikiko gerra jasaten jarraitzen du. 2013an 9.500 zibil hil zituzten. Bizitza eskubidea eta segurtasun fisikoa dira intentsitate txikiko gerra horren lehen biktimak. Gerra horrek emakumea kaltetzen du, zuzenean edo zeharka (etxeko gizona hiltzean familiaburu bihurtzen dira). Gerrak eta okupazioak milioi bat irakiar baino gehiago hil dituzte, eta beste horrenbeste alargun eta bost milioi inguru umezurtz eragin

16

16 urte bete gabe dituzten neskengatik 30.000 dolar ordaintzen dira; adin horretatik gora, 2.000 dolar. 10 urte besterik ez zituzten neskak eraman izan dira Jordania, Libano eta Saudi Arabiara, esaterako, sexualki esplotatzeko

eraginik emakumeen benetako egoeran. Askotan erabiltzen da kuota okupaziopean emakumeen aurka egindako krimenak ez-kutatzeke. Gainera, Gobernuak berak ez du betetzen kuota hori: 2010ean osatutako Exekutiboak 44 ministerio ditu, eta bakarra dago emakume baten zuzendaritzapean: Emakumeen Gaietarako Ministerioa. Gainera, Ibti al-Zaidino ministroa ez da gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunaren aldekoa».

«Emakume parlamentario gehienek ez dute agertu emakumeen eskubideak defenditzeko borondaterik; alderdiak esandakoa errepikatzen mugatzen dira. Beraz, mahaiaren gainean jarri beharko genuke zertarako balio ote duen emakumeak Parlamentuan izateak. Esaterako, Jenen Al-Ubaedey parlamentariak beste edozein diputatuk baino gehiago justifikatu izan ditu genero indarkeria eta poligamia».

«**Manifestazio eskubidea** ere galdu dugu Iraken. 2011ko ekainean, Gobernuaren sostengua zuten gizon armatuek manifestari baketsuei eraso egin zieten Bagdad hiriburuko Tahrir plazan, segurtasun indarrek beste aldera begiratzen zuten bitartean. Gobernuak honela erantzun zuen: legedia gogortuz eta suni eremuetan atxiloteta asko egin. Ekintzaile eta politikari eza-gunenak izaten ziren atxilotuak. Kazetariei eta hedabideei ere eraso egin izan diete Gobernuaren aldekoek».

«**Genero indarkeria oso larria da eremu publikoan.** Kalean segurtasunik ez izateak, errepideko kontrolek, suntsitutako osasun sistemak eta kutsatutako urak, beldur, antsietate eta etsipen sentimenduekin nahastuta, amak beste inor baino gehiago kaltetzen dituzte. Era seguruan umea erditzea pribilegio bihurtu da, giza eskubidea izan beharrean. Haurdunen %38k anemia daukate. Gainera, finantziazio arazoak direla-eta, 2010ean NBEak Irakeko kanpaina humanitarioa murriztea erabaki zuen; ondorioz, ezin du janaria banatzen jarraitu. Egoera horrek batez ere 800.000 haur-



Telebistako “Arab Idol” kantu lehiaketan parte hartzeko aurkeztutako hiru neska, urduri, ez baitakite hautatutako dituzten ala ez. Safin HAMED | AFP

dun eta jaioberriak dituzten emakume kaltetuko ditu. Baita eskolara joateko adinean dauden beste milioi bat ume ere. Amen hilkortasun tasa inguruko herrialdeetako handiena da. Heriotza horien %80 saihesteko modukoak dira. Emakumeen %47k diote arazoak izan dituztela sistema publikoko osasun zerbitzua jasotzerakoan, ezin ordaindu zeudelako».

«**Sortzetiko malformazioak** ere nabarmentzeko modukoak dira. Irakeko mendebaldean dagoen Falluja hirian (Al Anbar probintzian) ezkontzen diren emakume gazteek ez dute haurdun geratu nahi, jaioko diren umeek malformazioak izango dituzten beldurrez. 2004ko azaroan, AEBetako Armadak fosforo zuria erabili zuen Fallujaren aurkako erasoetan. Chris Busby doktoreak, Fallujako egoera sanitarioa aztertu zuen ikertzaileak, esan du hiriko biztanleek Hiroshima eta Nagasiko bonbardaketa nuklearretatik bizirik atera zirenek baino minbizi, leuzemia, ume hilkortasun eta mutazio sexual gehiago izaten dituztela. Mosul, Najaf, Basora, Hawiya, Ninive eta Bagdad ere sortzetiko malformazio asko izaten da, Mozghan Savabiasfahani Michigango Unibertsitateko toxikologoak jakinarazi duenez».

«**Legearen aurka pertsonak trafikagai hartzea** ohiko bihurtu da Iraken, nahiz eta fenomeno horren aurkako NBERen agiriak sinatu dituen Gobernuak. Organo trafikoa, prostituzioa eta eskaletasuna izaten dira helburuak. 16 urte bete gabe dituzten neskengatik 30.000 dolar ordaintzen dira; adin horretatik gora, 2.000 dolar. 10 urte besterik ez zituzten neskak eraman izan dira Jordania, Libano eta Saudi Arabiara, esaterako, sexualki esplotatzeko».

«**Torturak**, gehiegikeria sexualak eta okupatzaileek Abu Ghraib eta tankerako lekuetan egindako bortxaketak ez dira amaitu, nahiz eta Barne eta Defentsa Ministerioak diren egun segurtasun indarren arduradunak. Indar horiek estatubatuarrek eta britainiarrek gaitu zituzten».

Emakumea familiaburu bihurtzeak suposatzen duena eta Al Anbar probintzia zergatik zigortzen ari diren esplikatu ondoren, egileak honakoa erantsi zuen: «Irakeko emakumeei arazo nagusia zein den galdetzean, segurtasuna erantzuten dute. Ondoren ageri dira osasuna, hezkuntza eta lana. Esku hartze politikorako eta demokrazia garatzeko tailerrak antolatzea oso ondo dago, baina gatazka garaietan, edo gerra baldin badago, hori azken lehentasuna izaten da».

ARGENTINA

Errusiako bikote gay batek homofobiatik ihes egin eta asilo politikoa eskatu du

 **GIZARTEA** / Daniel Galvalizi

Orain urte batzuk ezagutu zuten elkar. Interneten nabigatzen ari ziren, antzeko joerak zituzten pertsonen bila. Hasiera batean eskutitzen bidezko harremana izan zuten, Thailandian erritu erlijioso baten bitartez beren arteko amodioari zigilua jarri zioten arte. Garai hartan 47 urteko Alexander Eremeevek eta 35 urteko Dimitri Zaitsevek ez zekiten hegialdeko hemisferioko metropoli batean, oso urruti, beraien arteko bat egiteari estalki legala emango ziotenik. Bazterketa eta indarkeria nagusi ziren testuinguru soziala atzean uzteko aukera paregabea.

Alexander Sotxikoa da, Itsaso Beltzeko ekialdeko hirikoa, Neguko azken Joko Olinpikoak egin ziren lekukoa. Dimitri, berriz, Kamtxatka penintsulan sortu zen, Errusiako ekialdeko muturrean. KGB Sobietar Batasuneko barneko zein kanpoko kontraespioitza eta segurtasuna kontrolatzeko erakundeko agente ohia da Zaitsev.

Iaz iritsi ziren Argentinara, urtea amaitzeko gutxi falta zela, bikote gayek elkarrekin bizi ahal izateko herrialderik egokiena zein ote zen ondo aztertu ondoren. Argentina izan zen bikote-kideen arreta erakarri zueneta ko bat. Baina ez zen bidaia luzeak egiteko gogoia izan hain urrutira eramango zituena, baizik eta Vladimir Putin Errusiako presidente kargura berriz iritsi zenean beraien joera sexualaren eraginez bertan p behar izan zuten jazarpen soziala larritzea.

GIROAK, OKERRERA

«Ezohiko harreman sexualen propaganda» erabat debekatzen duen lege homofobia onartu zuen iaz Errusiako Gobernuak, eta egoera horretan zailago bihurtu zen beren joera sexuala ezkutatu nahi ez duten bikote gayek bertan jarraitzea.

Alex Freyre Buenos Aires Sida Fundazioko zuzendaria da; LGBT lesbiana, gay, bisexual eta transexualen komunitateko ekintzailea eta, gaur egun, aniz-

Alexander Eremeev eta Dimitri Zaitsev Buenos Airesen ezkondu ziren. Argentinako hiriburua aukeratu zuten elkarrekin bizitzeko, bertan homosexuali onartzen zaizkien eskubideen eraginez. Beren herrialdeko indarkeria homofobia itogarria egin zitzaien eta ihes egin zuten. Aurki asilo politikoa emango die Argentinak.

tasun sexualarekin zerikusirik duten arloetako Argentinako Gobernuak funtzionarioa. Herrialdean oso ezagun egin zen sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen alde egin zuen borrokaren ondorioz. 2010ean lortu zuten bazterketa atzean uzten zuen legea erakundeek onartzea. Freyre bera Jose Maria Di Belloarekin ezkondu zen legea onartu aurretik, errekurtsu judi-

zialen bidez. Herrialdean egiten zen sexu bereko pertsonen arteko lehen ezkontza izan zen hura.

«Bi errusiarrak ezkondu ziren egunean nazioarteko hedabide batzuk bertan egon ziren. Zeharo hunkituta geratu ziren ezkonberriak. Baina gero osaba batek telefonoz hots egin eta esan ziren Errusiako hedabideek beraien ezkontzari buruzko informazioa eskaini ondoren, herri-

ko biztanle batzuek oso gaizki hartu zutela berria. Une horretan hasi ziren etxekoek jasan beharko zuten indarkeriarekin kezkatzen. Beldurtu egin ziren. Atsedean hartu eta pixka batean hedabideekin ez hitz egitea erabaki zuten», esplikatu dio Freyre GAUR8ri.

Eremeev eta Zaitsev Diego de Jesus Arias argentinararekin jarri ziren harremanetan ezkondu aurretik, Mateadas por la Diversidad erakundeko kidearekin. Beren etxeetan baztertutako gazte homosexuali laguntza ematen diete aipatu elkarteak. Sotxiko Neguko Joko Olinpikoan hasierarekin batera Buenos Aireseko plaza batean egindako manifestazio batean ezagutu zuten De Jesus, eta berak Freyre aurkeztu zien. Ordurako ezkontzeko hitzordua eskatuta zuten erregistro zibilean. CONARE errefuxiatuen batzorde nazionalarekin ere harremanetan hasiak ziren. Hala ere, Freyre, be-

Homofobiaren aurkako manifestari baten atxiloteta, Errusian.
GAUR8



Alexander Sotxikoa da, Itsaso Beltzeko ekialdeko hirikoa. Dimitri, berriz, Kamtxatka penintsulan sortu zen, Errusiako ekialdeko muturrean. KGBko agente ohia da Zaitsev

Senideek ezkontzaren notiziak errusiarren artean eragin zituen erreakzioen berri eman aurretik, beraiek askotan hitz egin zuten kazetariekin, batez ere ezkontza egunean

raien kasua ezagutzean, Argentinan gera zitezen laguntza eman zien.

Senideek Errusiatik deitu eta ezkontzaren notiziak errusiarren artean eragin zituen erreakzioen berri eman aurretik, beraiek askotan hitz egin zuten kazetariekin, batez ere ezkontza egunean. Esaterako, Eremeevek zera esan zuen: «Errusian ez genuen elkarrekin bizitzeko aukerarik, eta ezin genuen ezkondu, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak baimentzen dituen legerik ez dagoelako. Alderantziz, gayek jazarpena sufritzen dute homosexualitatea publikoki adierazten duen zerbaiteginez gero, eskua elkarri emanda joateagatik edo kalean musu emateagatik, esaterako».

«Interneten denbora asko egin genuen nora joan aztertzen. Aukera guztiak eduki genituen kontuan eta azkenean erabaki genuen Argentina zela lekuri egokiena. Gure ezkontzarekin errusiar homosexuali

laguntza eman nahi diegu, beraiek ere lor dezaten guk lortu duguna, gure amodioa askatasunez bizitzea», adierazi zuen kazetarien aurrean Eremeevek.

Egun berezi hartan ezohiko jantziarekin zegoen bikotea: txaleko gris bana, zinta koloretzu batekin apainduta: erdia Argentinako banderaren koloreekin, eta beste erdia ortzadarraren koloreekin, aniztasuna aditzera emateko. Gainera, Errusiako banderak dituen koloreetako lore bana.

BEGIRADA ERASOKORRAK

Freyrek esan duenez, beraiek bazekiten ezkontza legala eta publikoa zela. «Errusiara itzuliz gero zer gertatuko litzatekeen ez jakiteak eragiten die beldurra. Ezkontzeko erabakia hartu zutenean bazekiten beraien herrialdera itzultzerik ez zutela izango, espetxean bukatzeko arriskua handiegia baitzen».

«Maiteminduta zeudela ezkontzea erabaki zutenean, Ale-

xanderrek eta Dimitrik kontzientzia politikoa hartu zuten. Orduan hasi ziren gaiaren inguruko mapa politikoa ikertzen. Berehala konturatu ziren Argentina zela beraientzako aukerarik onena, bertan ezkondu nahi duten atzerritarrei ez baitaie exijitzen aurreko herritartasunari uko egitea eta hori egiten duen herrialde bakarra delako. Gainera, hemen umea adoptatzeko aukera ere izango dute», kontatu digu Freyrek.

Berak asko hitz egin zuen Errusiako bikotearekin. Beraien iragana ezagutu zuen. Baita aurrrera begira dituzten asmoak ere. Freyrek argitzen du beraiek ez direla ekintzaileak eta ez zutela gauza askorik egin beren etxekeok homosexualen esku-bideen inguruan kontzientzia har zezaten. «Elkar ezagutu zuten bi gizon baino ez ziren, baina homofobiaren eraginez, bizilagunen begirada erasokorrekin ezin zuten elkarrekin bizi. Beraien paranoia ez dago erokerian oinarrituta, jakin duten edo ikusi eta sentitu dituzten gauzetan baizik; besteen begirada homofoboak ez dira asmatzen», erantsi du.

Errusiarrek Freyleri kontatu ziotenez, Neguko Joko Olinpikoak hasi aurretik, Sotxin larriagotu egin ziren Poliziaren homosexualen tabernen aurkako razziak. «Gauza bera gertatu izan da Buenos Airesen bertan beste garai batzuetan. Ni 19 aldiz atxilotu ninduten 1980ko hamarkadan, Poliziak diktadura garaiko jarrereri eusten zienean», esan digu.

«Polizia era horretan aritzera bultzatzen duten oinarri juridikoa eta jarrera kultural homofobia dituzte oraindik Errusian, eta homosexualitatea kriminalizatzen da. Beraiek esan didateenez, lehenagotik ere bazuten errepresioa areagotu egin zen, hiria gayrik gabe utzi behar dela dioen ideiarri jarraituz. Jazarpenak gora egin izanak giro itogarria eragin zien. Direna direlako jazarpena ezartzen dien kulturari nahi bezala bizitzerik ez dute, eta hori ez zaie gertatzen delituren bat egin dutelako, direna direlako baizik», erantsi du.



Bikotea San Telmo auzoan bizi da, hiriburuko auzorik zaharrenean. Bertan turista asko ibiltzen da beti, auzoan bizi diren atzerritarrekin nahastuta. Turismo agentzia bat dute eta negozioarekin jarraituko dute Interneti esker, sarean berdin baita turistak Kamtxatkara edo Rio de la Platara bidaltzea. Hori bai, Errusiako emakume bat kontratatatu behar izan zuten itzultzaile lanak egiteko, beraiek gaztelaniaz ez baitute egiten, eta ingelesez ere, oso gutxi.

ERRUSIAKO UMEAK GOGOAN

Freyrek esplikatzen duenez, errusiarrek beren herrialdeko umeak zituzten gogoan ezkontza publikoki egitea erabaki zutenean. «Ekintza politiko bihurtu zuten ezkontza Errusiako umeek beraiek haurtzaroan su-

HOMOSEXUALEN AURKAKO INDARKERIA ERAGITEN DUEN ERRUSIAR LEGEA

Putinen Gobernuak iazko ekainean bultzatu eta onartu zuen homosexualen aurkako lege bat. Horren arabera, debekatuta dago «ezohiko harreman sexualen propaganda» egitea, era horretan haurtzaroa eta familia babesten direlakoan. Testuak dio sexu bereko pertsonen arteko harremanak publikoki adieraztea «propaganda» egitea dela. Legeak gay kolektiboaren alde hitz egiten duten hezitzaile eta irakasleei ezarri beharreko isunak ere zehazten ditu. Legea onartu zenetik, Errusiako LGBT komunitateak eraso homofoboek gora egin izana salatu zuen. Homosexualei jendaurrean emandako jipoiak ere izan ziren. Atzerritarrek ere kaltetzen ditu arau homofoboak: legea bortxatuz gero, 15 egun egin ditzakete atxilotuta.

Sotxin egin berri diren Neguko Joko

Olinpikoak zirela-eta, Errusiako Gobernuaren jarreraren salaketak oihartzun handiagoa izan zuen. Barne Ministerioak berak argitu behar izan zuen kirolari homosexualak ez zituztela zigortuko, gobernuz kanpoko erakunde batzuek jokoei boikot egitea proposatzen ari zirela ikusita. Google bilatzaileak berak egun haietan bere logoa aldatu egin zuen, ortzadarraren koloreak erabilita, LGBT komunitateari elkartasuna adierazteko.

Neguko Joko Olinpikoak hasi eta gero, Poliziak Vladimir «Vladi» Luxuria atxilotu zuen, Italiako Parlamentuko kide izandako transgeneroa. Europako Parlamentu batean eserlekua lortu zuen «lehen transexuala» izan zela diote hedabideek. Ortzadarraren koloreekin jantzita, gune olinpikoan azaldu zen «homosexuala izatea oso ondo dago» esanez.



Europa astindu!

Ruben Sanchez

Lozorroan urte batzuk eman eta gero, Europan azken urteetan –krisi ahalguztiduna herritar-
rrak baztertzen eta pobretzen ari den heinean– ezkerra altxatu eta apurka-apurka ari da mobiliz-
tzen. Apurka-apurka badoa berriz ere klase kontzientzia pizten, ho-
nezkerok ez gara hain “kontsumi-
tzaile” eta hain “hiritar”, behekoak
baizik: langabetuak, emakumeak,
pobretuak... Tamalez, faxismoak
ere “krisi” garaiak baliatzen ditu
bere giharra sendotzeko. Gainera,
ezkerrak lozorroan emandako ur-
teetan, faxismoa borroka ideologi-
koa egiten eta irabazten ibili da.
Beraiek *bietan jarrai* ibili dira –eta
dabiltza–. Batetik, ideien borrokan
lortu dute Europa arrazista bat
sortzea, Europa bat bankuek eta
transnazonaletako patroiek go-
bernaturik, Europa inperialista bat.
Eta lortu dute Europa horren zuta-
beak bermatzen dituzten indar
politikoak izatea gehiengo absolu-
tua legebiltzar eta abarretan. Bes-
tetik, kalea irabazten ibili dira: pa-
ramilitarrak, hooliganak, kontrol
sozialerako talde antolatu borti-
tzak. Europako herrialde guztietan
daude. Kasu batzuetan, %20tik go-
rako ordezkariak politikoarekin.
Ukrainan gobernuan daude, Espai-
nian esbastikekin joaten dira fut-
bolera edo Casa Pepe-ra, oldartsu
Grezian, Italian, Frantzian, Holan-
dan, Norvegian, Suitzan, Ingalate-
rran... Europa osoan. Tokian tokiko
abertzalekeriak bultzatu eta etor-
kin, gay/lesbiana, ezkertiarrei...
eraso zuzena egiten diete.

Europar Batasunak babestu due-
la estatu kolpe faxista Ukrainan?
Eta zer? Zer da hain arraro, ezber-
din? Zer egin zuten Francorekin
gerra zibilean? Eta gerra ostean?
Noiz eta zergatik hasi ziren Musso-
lini eta Hitler “etsai” izaten? Astin
dezagun Europa behean eta ezke-
rrean kokatzen garen emakume,
gazte, langile, gay/lesbiana, kultur
eragile, etorkinok... mapa ofiziale-
tan agertzen ez garen herriok. •

fritu zutena sufritu beharrik
izan ez dezaten. Horregatik na-
barmentzen dute arazo kultura-
la, eta ez Putinen lege homofe-
boa, arau hori Estatua kaltegile
bihurtu duen postrean apainga-
rri moduan jarritako fruitua
besterik ez baita», dio.

Gobernuak datozen asteetan
erabakiko du asilo politikoa

Txaleko gris bana jantzita
ezkondu ziren, zinta
koloretsu batekin
apaingaturik: erdia
Argentinako banderaren
koloreekin, eta beste erdia
ortzadarraren koloreekin,
aniztasuna aditzera
emateko. Gainera, Errusiako
banderak dituen
koloreetako lore bana.

GAUR8

**Joko Olinpikoak hasi aurretik, larriagotu egin
ziren homosexualen tabernen aurkako razziak.
Gauza bera gertatu izan da Argentinan. Freyre
19 aldiz atxilotu zuten 1980ko hamarkadan**

**Gerra kulturala egiteko dago oraindik ere:
herritarrek ulertu behar dute ezin dela
pertsona bat gorrotatu, maite duen pertsona
gizartearen gustuko ez delako**

emango dien ala ez. Litekeena
da, hedabideetan askotan aipatu
den gaia delako eta Freyreren la-
guntza dutelako. Gainera, agin-
tariek kontuan hartu beharko
dute Errusiara bidaliz gero ber-
tan izango duten arriskua.

Eremeev eta Zaitsev ez dira
asiloa eskatu duten bakarrak.
Asia eta Afrikako toki ezberdine-
tako dozenaka pertsonak eskatu
dute asiloa Argentinan, baina
horien erregistroa ez da publiko
egiten, eskatzaileek beraiek kon-
trakoa erabakitzen ez badute.

Sexu bereko pertsonen arteko
ezkontzak hogeiren bat estatu-
tan legezkoak badira ere, leku
gehienetan egiteko dago orain-
dik ere gerra kulturala: herrita-
rrek ulertu behar dute ezin dela
pertsona bat gorrotatu, maite
duen pertsona gizartearen gus-
tuko ez delako.



Eleno Alkain eta Saioa Aginako
Psikoterapeutak

Gorputz kalakaria

Nire begi aurrean apal handi batzuk ditut, guztiak liburuz beteta daude. Burura datorrit hitzen transmisioa gure eguneroko bizitzan zeinen garrantzitsua den, zeinen garrantzitsua zaigun besteei gure beharrak eta berriak ulertaraztea eta jakinaraztea. Hitzien jarioaren eguneroko puzzlea osatzen dute eguneroko hitzek, hitz teknikoek, hitz jasoeak, artistikoek eta abar luzeak. Horien bitartez gure komunikazio sistema eraikitzen da, baina ez horiekin bakarrik. Bada garrantzi handia duen beste komunikazio bat: gorputz komunikazioa.

Ikerlari batzuen esanetan (Mehrabian), gure egunerokotasunean, gorputz komunikazioa %55 da; % 38 ahozko komunikazioa (tonua, intentsitatea...) eta % 7 hitzen bitarteko komunikazioa. Historiari erreparatuta, gorputz komunikazioa ahozko komunikazioaren aurrekoa omen da. Jaio aurretik eta jaio ondoren haurraren gorputza komunikazio bide garrantzitsuenetako bat da. Haurtzaroan, adibidez, beldurragatik eta lotsagatik gurasoen hankapean ezkutatzeari maiz ikusten dugun irudia da, sarritan haurrek gurasoen lepoari heltzen diote, konfiantzarako, babeserako edo segurtasunerako gotorleku izango balitz bezala.

Gure egunerokotasunean, gorputz komunikazioa arlo eta esparru askotan erabiltzen dugu. Politikan, esate baterako, behatz, esku ibilera hitz egiten ari da uneoro. 1960an, adibidez, Kennedy eta Nixonen arteko debatean, irratiz entzuten egon ziren entzuleek Nixon garaile eman zuten, telebistaren bitartez ikusten egon zirenek, berriz, Kennedy garaile eman zuten; eztabaida horretan gorputz hizkuntza funtsezkoa izan zen balantza batera edo bestera joan zedin. Ondorengo urteetan, gorputz hizkuntzak indar eta garrantzi handia hartu zuen politikarien artean. Gaur egun, goi mailako politikari askok aholkulari pertsonalak dituzte eztabaida edo agerpen garrantzitsuetan zer gorputz keinu, mugimendu, eta abar noiz eta nola egin behar dituzten azaltzeko.

Hainbat kulturatan gorputz hizkuntza desberdina izan arren, elkarrekin ulertzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Ekialde, mendebalde, hegoalde edo iparraldean keinu batzuk berdina izanagatik ere, gorputzek diotenak esanahi erabat desberdina izan dezake. Adibidez, mendebaldean, behatz potoloa altxatzeak esanahi ona du, beste zenbait herrialdetan (Iran, Irak...) keinu berdina itsusi ikusita dago. Zenbait herrialdetan, eskuineko eskua erabiliko dute jateko; gurean, berriz, esker nahiz eskuina erabiliko dugu.

Agurrak, esaterako, desberdinak dira lekuaren arabera. Japonian, adibidez, gorputza makurtzeko ohitura dute; mendebaldean, eskua luzatzen dugu; herrialde arabiarretan, musua emanez edo eskua bihotzera hurbilduta agurtuko dute. Erlijio bakoitzak ere otoitz egitean bere desberdintasunak erakusten ditu, kristauak eskuak elkarturik egiten dute, musulmanen kasuan, eskuak gora begira eta irekita jarriko dituzte; budistek meditatzerakoan eserita edo zutik jarduten dute; Aieneen harresian, judutar askok burua etengabe mugi-

tzen dute errezoa egiteko. Kopetilon gaudenean, ezin hobeto islatzen zaizkigu haserrea eta harridura trazarpean. Batetik bestera jira eta bira gabiltzanean edo gure hanka etengabe lurretik altxa gabe saltotxoka dabilenean gure urduritasunaren testigu izaten gara. Maitasunean, besarkadetan, laztanetan, gorputzen ukimenetan... bizipen horietan gorputz distantzia desgertu eta kontaktuari ateak zabaltzen dizkiogu. Gorputza ezin da isilik egon; hitzez esaten ez duguna maiz gorputzak esaten digu, gorputza menperatzea oso zaila baita. Hitzek isilarazi nahi dutena gorputzak agerian uzten du. Gurekin betidanik daramagun hizkuntza izan arren, ezezaguna, arrotza edo ahantzia dugu. Gorputza hizlari aparta, kultura anitzetako hizkuntza, maitasunaren adierazle, emozioen erakusleho eta gure nortasunaren aditz emaile bikaina dela bistan da. Orain, zuei dagokizue zuen gorputzak zer dioen, zertarako dioen eta nola dioen deskubritzea. •

durundia@gmail.com



Gorputz komunikazioak garrantzi handia du gure egunerokoan.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Zer abestuko ote dute biharko ikastoletan?

Eustakio Mendizabal “Txikia”ren omenez eta ETako buruzagi Candido Saseta 36ko gudarien buruarekin parekatuz, Telesforo Monzonek idatzitako kantak dioen moduan, «gure haurrek biharko ikastoletan heien izenak abestu»ko ote dituzten ez dakigu. Kasik segurutzat jo daiteke, ordea, gaur egun hainbatek inposatu nahi duen beste «*relato*» bat eta bakar hori ez dela izango hamarkada batzuen buruko Historiako liburuek jasoko dutena. Euskal Herrian izandako arazoa ETara mugatzen dela eta erakunde horren motibazioen atzean gutxi batzuen berezko gaiztakeria baizik ez dagoela dioen mezuak ez du ez hanka ez buru. Ezingo dute, saiata ere, oinarri-oinarrian arazo politiko bat dagoela ezkutatu, ez frankismoaren errepresioa berriro ere arazo hori ezteandari zuela, ezta frankismoaren eraldaketarako erreforma okerrak gatazka betikotu eta gaiztotu zuela ere. Nola justifikatuko ote dute Xabier Arzalluzek ETari buruz «ez dira Tempranilloaren banda» esan izana edo EAJren buruak Argala eta Txomini eginiko errekonozimendua? Nola ezkutatuko dituzte De Gaullek Frantzia naziez askatzen laguntzeagatik kondekoratu zuen Ordoki komandanteak ETako militanteen kontra Parisen izandako epaiketetan botatako hitzak? Ez, gezurraren tamaina handiegia da. Faltsukeria petralegia da. Azken bost hamarkadatan Euskal Herrian gertatutakoaren azterketak beste sakontasun eta seriotasun bat behar du, biharko ikastoletan faltseria ikas ez dezaten.

Baina, aitortu dutenez, Espainiako agintariekin ditzosozko «*relato*»aren bataila irabazi nahi dute. Eta horretarako frankismoaren ondotik haustura demokratikoaren alde egindako hautua ere kriminalizatu nahi izan dute. Horregatik eraman dute Hasier Arraiz epaitegira. Bere burua ere ukatu behar du ezker abertzaleak; Adolfo Suarez, Juan Carlos I.a, Martin Villa eta enparauak eredugarri izan zirela ontzat eman behar izateraino, antza.

Zoritxarrez, EAJk ere bat egin izan ohi du nolabait existentsia horrekin, modu eta era ezberdinetan, gaiaren arabera. Loiolako negoziazioen aldiaren orduko EBBko presidentek, Josu Jon Imazek, argiki esan zuen alderdiak ez zuela trantsizioan egindako hautua zalantzan jar zezake-

en ezer onartuko. Orain, mutil koskorretan «*Carrero voló, voló, iup... lará*» jertsea gora botaz ibiliko zen Jonan Fernandez egituratzen ari den mezua aprobetxatuz, badirudi EAJk eta Urkulluk une hartan izandako jokabideen gaineko eztabaida irabazi nahi duela, ezker abertzaleak «bidegabe» jardun izana onartu behar duela eskatuz.

Dudarik ez da, prozesu demokratikoaren aurrerabiderako, goiaz ala berant, ETak egindako kaltearen eta sufri-menduaren aitortpen solemne, sakon eta euskal herritarrentzat sinesgarria egin beharko duela. Beste kontu bat da, ordea, halakorik erabiltzea egungo estatus juridiko-politiko babestuz zenbaitzuek gatazkan izandako ardurari iskin egiteko edota aurrera begira nagusitasun politiko aldarrikatzeko. Oso bestelako kontua indarkeria eta inposizioa oinarri izan duten prozesu politikoak (erreforma frankistarena, kasu honetan) zuritze edota zilegitasun osoa duen –eta, beharbada, inoiz baino indar

Hasier Arraiz epaitegira eraman dute. Bere burua ere ukatu behar du ezker abertzaleak; Adolfo Suarez, Juan Carlos I.a, Martin Villa eta enparauak eredugarri izan zirela ontzat eman behar izateraino, antza

handiagoa izan dezakeen– proiektu independentista kaltetzeko erabiltzea.

Azken horretan arituko dira Espainiako Gobernua eta Estatua, inposizioa justifikatzen eta erabakitze eskubidearen gauzatzea galarazten. Orain datorren bataila –bataila politikoa, alegia– galdu nahi ez dutela nabarmendu du berriki Barneko ministroak, eta horretarako eskubideak mugatu, indarkeria erabili eta legeak bihurrituko dituzte. Eta krudel eta anker aritzeko prest daudela erakutsi dute, hiltzorian dagoen Josu Uribetxebarria estutuz. Ez dute bestelako muniziorik bataila horretarako. Ez dute ez herri babesik ez eskaintza politikorik. Ez dago ez Suarezik ez aitaren semerik Espainiako proiektu ustela Euskal Herrian salduko duenik. Epaileak, poliziak, kartzelak, debekuak... horiek dituzte arrazoibide. Ez arrazoi ez bide ez izan arren. •

TXULETA ETA BAKAILAOA

Nondik datoz gure platerean hain ohikoak diren jakiak?

 GIZARTEA / xole.aramendi@gaur8.info

Parrilan erretako txuleta eta sukaldean prestatutako bakailaoa dastatzeko aukera eskaintzen digute jatetxeek. Baita sagardotegiekin ere. Parrilan erreta jaten dugun haragia eta tortillan edo frijituta eskaintzen diguten bakailaoa erabat bertakotzat ditugu euskal gastronomian. Baina, nondik datoz jaki hauek? Carnicas Goya eta Bacalaos Alkorta enpresek Europa iparraldetik ekartzen dute ondoren gure platerean jaten dugun haragia zein arraina. Izan ere, Kantauri itsasoan ez dago bakailaorik, ez eta gure larreetan horrenbesteko behirik ere.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

JOSE ANTONIO GOYA

«Bezera txuletarekin atzean dagoen lanaz ohartzea nahiko nuke»

Odolean darama tratulari sena. Hemen ganadu eskasia zegoez, kanpotik –Torrelave-

ga, Santander, Salamanca, Valentzia– ekarritako abereez hornitzen zituen baserriak aitona Patxik. Bi seme, Ramon zaharrena eta Alejandro gazteena, haren egin ziren gero. Haien leku-

koa hartu zuen Jose Antoniok, Ramonen semeak.

Jose Antoniok (Tolosa, 1962) Anoetan duen lantegian hartu gaitu. 2000. urtean eraiki zuten pabilioi berria. «Tolosan genuen

harategia txiki geratu zitzaigun. Kamioiak atzera-aurrera ibiltzen ziren eta ez zen operatiboa. Ondoren harategia itxi egin nuen, ezin nuen artatu. Bertan lanean ari ziren denak enpresara etorri ziren», esan du.

16 langile dira dena. Bakoi-tza bere zereginetan aurkitu du. Haragia zatitu eta poltsetan sartzen ari dira, merkaturatzeko. Txuleta da produktuen artean izarra, baina entrekota eta azpizuna ere eros daitezke, besteak beste.

Aitak ostalaritzarekin zuen harremana sendotu egin du Jose Antoniok. «Nicolas eta Julian erretegiak hornitzen hasi zen aita. Garai hartan hemen bertako haragia nahikoa zen, baina gero ez, ez zegoen nahikorik. Kontuan hartu bizkarra behiaren %10 baino ez dela. Behiaren bizkarra bi zati handitan bana dezakezu, ez gehiago. Eta hain gara mokofinak %10 horixe besterik ez dugula nahi», bota du.

Kanpotik ekartzeak ez du esan nahi bertan haragi onik ez dagoenik. «Haragia beti ondo tratatu da hemen. Baserrietan ahalik eta ondoen egin izan dute, hemen bertako haragiak bermea dauka. Hori gauza bat da eta bestea guk bilatzen duguna, bereziki erretegiarako eta sagardotegiarako proposa dena. Behi denak ez dira egokiak parrilan erretzeko. Koipe kopuru jakin bat behar du; horrek emango dio zaporea eta samurtasuna», argitu du.

Jose Antoniok argi dio: «Ostalaritzan bezeroen %80 samurtasuna nahi dute. %20 besterik ez dute, samurtasunaz gain, zaporea ere nahi».

Bezera batzuk haserretu eginen dira Tolosa bertako haragia ez dela jakitean. «Gipuzkoa behiez josita ikusten al duzu zuk? Sagardotegiak bakarrik hornitzeko dena behiez beteta egon beharko luke... Mito asko dago kontu honetan», esan du albotik Koldi Larrarte emazteak.

«Hau Suitza dela pentsatzen dute. Sagardotegi kanpaina batean behi guztiak akabatuko genituzke, onak zein txarrak –bizkarraz bakarrik ari naiz–. Baina

ondo pentsatuta, baita behi osoa txuleta izango balitz ere, pentsa! Eskaria handia da...», gaineratu du Jose Antoniok.

Euskal Herriko sagardotegietan gutxi da bertako haragia. «Hasieran bai, bertakoa zen baina gogoan dut Burgos, Leon eta Galizara nola laguntzen nion aitari ganadu bila. Eta geroago estatuan ere ez zegoen behi nahikorik», kontatu du.

HUTSIK EZ

Bezera ez dio huts egin nahi. «Erregulartasuna nahi du bezera. Ganaduzaleak aste honetan haragi onik ez daukala esaten badit, zer eskainiko diot jatetxeko nagusiari? Arraina askoz estandarragoa da», dio.

Goya enpresak merkaturatzen dituen txuletak erretzerakoan bada kontuan izan beharreko zerbait: beroa. «Haragi honek bero handia behar du ondo egiteko. Beroak barruraino sartu behar du, koipea urtu eta gorritu arte, bilduz joan diren nabardura denak askatuz».

Goyarenak bereziki parrilan erretzeko txuleta dira. «Etxe-koandreek eta haragi enpresa handiek ez dute hainbeste koipe duen txuletarik nahi. Gurea produktu gastronomikoa da, gutizia egiteko», argitu du.

Bitxia da, baina esnetarako behiak proposagoak dira. «Koipe gehiago dute, haragitarako behia giharra izan dezan prestatu da genetikoki. Dena den, bietatik erabiltzen dugu».

Bere esanetan, lau baldintza bete behar ditu txuleta onak. Batetik, aukeraketa. Bestetik, heltze prozesu egokia. Hirugarrenik, egoki erretzea eta azkenik, haragia dastatzera doan pertsonaren aldatzea.

Aitonak eta aitak bizirik aukatzen zuten ganadua. Jose Antoniok hiltegiaren egiten du aukeraketa. «Carnicas Goya enpresaren lana horixe da, dau den tokian daudela behi onenak aurkitzea. Guk ezagutza hori eskaintzen dugu», nabarmendu du Larrartek.

Ikuste hutsarekin, senarrak badaki zein haragi den parrilarako onena. «Behi denak ez dira

berdinak eta bizkar guztiak ere ez. Batzuetan galdetzen didate haragi jakin bat zergatik dudan gustukoa, eta ez dakit erantzuten. Gerta daiteke koipe gutxiagoko bizkarra aukeratzea ere, zapore gehiago izango duela jakinda. Nola? Ez dakit».

Hozkailua ondo hornituta daukate. Bete-bete eginda dago. Zintzilik ikus daitezke, txukun-txukun bata bestearen ondoan, behi bizkarrak. «Bakoitzetik hoge txuleta ateratzen dira», esan digu Goya enpresako nagusiak.

HELTZE PROZESUA

Hozkailuan egiten dute ontze prozesua, hezetasuna eta hozberoa -gradu 1- kontrolpean dutela, samurtasuna irabazi bai, baina zaporerik gal ez dezan. Hauxe da gakoa. «Zenbait astez edukitzen dugu haragia hozkailuan, prozesu entzimatiakoak martxan jarritz. Aberea hil eta 48 ordura hasten dira martxan entzimak. Zelularen egitura desagitzen dute. Gure zaharrek bazekiten, intuizioz, hiru bat aste heltzen utziz gero haragiak zapore hobe zuela. Orain badakigu horren zergatia. Haragi batzuk hiru astetan punttuan daude baina beste batzuk lau aste t'erdi behar dituzte», adierazi du.

Hirugarren baldintza parrilako lana da. «Txuleta oso onarekin huts egin daiteke. Hori bai, esan beharra dago Euskal Herrian oso parrilero onak ditugula. Ez da nire kasua, ni parrilan oso txarra naiz! Kontrakoa uste dute denek, baina... ez daukat eskurik», aitortu du.

Azkena, bezeroaren aldartea. «Bezeroa umore onean egotea lagungarria da eta horretan sagardotegiko edo erretegiko giroak bere eragina du; azken finean, esperientzia gastronomikoa zentzumenei lotuta doa», nabarmendu du.

«Bezeroak etorri eta 'gogoratzen al zara egun hartan saldu zenidan txuletaz? Halakoa nahi dut' esan izan didate. Beti esaten diet nik haragia lor dezakedala, baina une hura ezin dudala errepikatu... Oroitzapen baten aurka ari naiz borrokan eta gu-

da hori galdua daukat. Gertatu izan zait bizkar beretik bi txuleta jarraian ebaki eta zer moduzkoak ziren galdetuta 'lehenengo bigarrena baina hobe' erantzutea bezeroak. Nola? Biak bizkar berekoak ziren eta... Lehenengo hobeto erre zuen agian... Hainbeste aldaera daude...», kontatu du.

Platerean txuletaren aurrean dagoenean bezeroa haragi zati horren atzean zenbat lan dagoen konturatzea nahiko luke. «Baserritarrak edo abeltzainak aberea haztea eta gizentzea, harakinak aukeratu eta ontzea, parrileroak erretzea...», esan du.

1990-92an, Europako mugak ireki zirenetik, behi onenen bila aritu da hainbat herrialdetan: Alemania, Danimarka, Herbehereak, Polonia... «Belgikan eta Frantzia ere egin ditugu saioak. Toki bakoitzeko onena oso ona da», dio.

Urtean zehar bisita egiten dio hornitzaile bakoitzari, baina ez gehiegi. «Badakite zer nahi dugun», dio. Hiltegi bakoitzean dagoen haragi guztitik ez da %10era iristen Goyak nahi dituen ezaugarriak betetzen dituen. «Ez da hain erraza. Gero eta zailagoa da koipe egokia duen behia aurkitzea», esan du.

Europar bertan txuletak "deskubritzen" ari dira orain. «Europar hemen egiten garenari begira daude. Orain arte era honetako haragiari muzin egin diote eta orain eskariak gora egin du».

Aitari lekukoa hartu zion Jose Antoniok, baina gaur egungo jarduerak gutxi du ikusteko hark egiten zuenarekin. Sarearen bidezko merkatua da berrikuntzetako bat. Enpresa garai berrietara egokitu da, txuletak Interneten salduz. Jose Antonio-ren emazteak du web orriaren (www.carnicasgoya.com/) ardurara. «Duela lau urte hasi ginen. Poliki doa, baina pozik gaude», gogoratu du Koldik.

Jose Antoniok oso garbi zuen. «Enpresa munduan oso ohikoa da hemen egindako egonaldiaren ostean etxera bertako produktuak eramatea. Batzuetan, hemen probatu ondoren, beren

«Bezeroak etorri eta 'gogoratzen egun hartan saldu zenidan txuletaz? Halakoa nahi dut' esan izan didate. Haragia lor dezaket baina une hura ezin dut errepikatu... Oroitzapen baten aurka ari naiz borrokan eta guda hori galdua dut»

«Belgikatik 20 txuleta eskatzen badizkigute etxean bertan jasoko dituzte, kamioi hozkailuan. European, gaur egun, ez dago arazorik. Europatik kanpo ere, urrunago iristen gara, hegazkin bidez»

herrian txuleta lor zezaketen galdetzen zidaten. Garbi neukan zerbait egin behar genuela; izan ere, oso zaila da hemendik kanpora horrelako haragia lortzea», azaldu du.

Proiektua garbi izanagatik baliabide egokien zain egon behar izan dute. «Online salmenta ezagun egin eta haragia bezeroaren etxera ondo iritsiko zen bermea eskainiko zigun enpresarik ez zegoen orduan. Orain bai, zerbitzu egokia eskain dezakegu. Seur enpresak zerbitzu berezia dauka penintsula osora eta Balearretara hotzean 24 ordutan bidaltzeko».

Salmentak gutxika gora doaz. «Madril, Bartzelona, Valentzia, Malaga eta Balearrak dira gure salmenta gune nagusienak. Toki eguzkitsuak dira, barbakoak egiteko ohitura dutenak. Erosle gehienak gizonezkoak dira», esan du Koldik.

Herrialde ugartan barreiatuta dituzte bezeroak. «Orain gutxi Londresko jatetxe batek erosi digu haragia», kontatu du Koldik.

JAPONIATIK ESKEAN

Tolosatik etxera bueltan txuletak eraman nahi zituen sukaldari japoniarraz ere gogoratu da. «Astebete eman zuen deika. Txuletak erosi nahi zituen. Prezioak galdetu nituen eta oso zaila da, panel osoa ondo izoztuta itsasontziz bidali ezean», azaldu du.

Nairobi, Dakar, Aljer... txuletak Afrikara ere iritsi dira. «Sukaldariak hara-hona ibiltzen dira mundu osoan eta hemen jaki japoniarrak sartzen diren beza-la haiek txuletak nahi dituzte».

European ez dago arazorik. «Belgikatik 20 txuleta eskatzen badizkigute etxean jasoko dituzte, kamioi izozkailuan. Europatik kanpo, urrunago ere iristen gara, hegazkinez», diote.

Izoztutako hanburgesak saltzen hasi berri dira, online. «Haragi zaporea izan zezan nahi genuen eta kosta egin zaigu behiaren hiruzpalau zati desberdin hartu eta nahasketarekin asmatzea. Baina lortu dugu», esan du.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

IBAN ALKORTA

«Lantegian, 24 orduz etengabe aritzen gara bakailao gezatua ekoizten»

Islan­diatik eta Faroe Uharteetatik dator al­kortatarrek saltzen du­ten bakailaoa. Bitxia da, ekoizpenaren zati han­diena Euskal Herritik bueltan Europa aldera joaten baita ber­riz.

Mundu osoko 35 herrialdeetan jaten da Elgoibarko lantegitik txukun-txukun prestatuta ateratzen den bakailaoa. Kri­si garaio­tan kanpoko merkatuari esker indartsu dago enpresa. «Krisiak ez digu hainbeste eragin kanpora esportatzen dugulako. Euskal Herrian eta Espainian %90 saltzen genuen eta orain %60-65ra jaitsi da. Euskal Herrian %5-10ean gabil­tz­a orain. Gero eta gehiago saltzen dugu atze-

rrian», esan du Iban Alkortak (Azkoitia, 1978). Kanpora doan bakailao gehiena izoztua da, esportazio­rako errazagoa. Euskal Herrian, dena den, gehiago kontsumitzen da bakailao gezatua. Estatu espainolean, ber­riz, gorantz egin du bakailao izoztuaren eskaerak, merkeagoa baita. «Igarri dugu produk­tu merkearen bila dabilela jendea. Produk­tu ona gehiago kostatzen da saltzea», dio.

Alkorta oraintxe itzuli berri da Dubaitik eta Japoniatik. «Beste euskal enpresekin bate­ra azokatan ibiltzen gara», dio.

Hotz egiten du lantegian. Langileak ohituta daude. Kanpoaldean gizonezkoak ikus daitezke, hara-hona, bakailaoa kargatzen. Barruan denak ema-

kumezkoak dira. Bakailaoa erretilutan jartzen ari dira. Bil­tegia ikustekoa da, 700 tona bakailao gazitu dauzkate prozesatzeko zain.

Lekutan geratu dira euskal arrantzaleek Ternua eta Labra­dorrerako bidea egiten zuten garaiak. Euskaldunak izan zi­ren bakailaoa gatzetan gorde­zen lehenak. Garai hartan ba­kailaoa usteldu gabe hona ekartzeko zuten modu bakarra gazitzea zen.

Arraina gutxitzearekin bate­ra, bakailao ontziak desagertuz joan ziren. Baina Euskal Herri­ko etxeetan eta jatetxeetan ez zitzaion bakailaoa jateari utzi. Ekarri egin behar, beraz. Lehen Ternutik, orain Barents Itsasotik. «Norvegiako eta Errusiako

«Bakailao izoztua arrain freskoa da; gezatua, ber­riz, ondutako arraina. Desberdin­du egin behar da. Toki berean har­rapatzen da baina ondorengo prozesuak ez du zerikusirik»

bakailaoa ere erabiltzen da, baina ez du hainbesteko kalitate­rik. Portugalen saltzen dute».

Bi produk­tu merkaturatzen dituzte al­kortatarrek: bakailao izoztua eta gezatua. Biak dira itsasoko uretan har­rapatutakoak, baina ez dute zerikusirik. Bakailao izoztua normalean arraste ontzie­k arrantzatuta­koa da. Ontzi handiak dira, izozkailuak. Aldiz, gezatuta saltzen dena ontzi txikiek egunean bertan har­rapatzen dute. 2.000-3.000 kilotara iristen direnean etxeratu egiten dira.

«Bata izoztu egin den arrain freskoa da, eta bestea gatzetan ondutako arraina. Desberdin­du egin behar da. Urdaiazpikoarekin alderatuz gero, bata Yorkeko urdaiazpikoa da eta bestea serranoa. Biak dira urdaiazpikoak, baina bata egosia da, eta bestea ondua. Biak izan daitezke txerri berdinaren hankak, baina prozesua desberdina da», azaldu du.

Ikusi hutsera ez da hain erraza desberdintzen. «Urdaiazpikoa ez bezala, bakailaoa bistara oso antzekoa da izoztua ala gezatua izan. Tenedorea sartzean desberdin­du daiteke. Ona bada xaflatan banatuko da, baina sardexka zuzenean barruraino sartzen bada ez da seinale ona. Gero, ahora sartzean igartzen da gehiago», argitu du.

Bakailao gezatuaz galdetu diogu. «Bakailaoa gatz lodiarekin gazituta iristen da lantegira. Osoa dator. Guk moztu eta hezur­rak kentzen dizkiogu, zerra edo labana erabiliz. Lodieraren eta tamainaren arabera sailkatu eta elkarrekin gezatzen dugu urez betetako ontzietan. Lodieraren arabera hiru­zpalau egun behar ditu gezatzen. Azkarrago egin daiteke, baina emaitza ez da berdina, ezaugarri batzuk galdu egiten ditu. Guk mantsoago egiten dugu, galtzen duena gatz­a izan dadin, ez propietateak», azaldu du. Xukatu, erretilutan ipini eta merkatura doa.

Izoztuta merkaturatzen dena horrelaxe iristen da Elgoibarko lantegira, osorik. «Hemen xer­ratan moztu eta glasatu egiten dugu. Arraina babesteko



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

egiten den prozesua da. Izoztu-ta dagoela, uretatik pasatzen da izotz geruza handiagoa har dezan. Berez ur gutxi ekartzen du. Izozterakoan erre egiten da arraina, beraz, babesa behar du eta glasatuaren bidez ematen diogu. Horregatik uretatik pasa, busti eta bustia dagoenean izoztu egiten da».

Bakailaoaren sektorean ere pikaeskarik ez da falta. «Lege-rik ez dago. Berez ura da, ez da ezer txarrik, baina badira ura bakailaoaren prezioan saltzen duten enpresak. %10 batekin nahikoa da, baina %40 sartzen badiozu...», bota du.

Bada beste desberdintasunik: gezatutakoak 25 eguneko iraungipena du. Izoztuak, aldiz, 18 hilabetekoa.

Lantegian 24 orduz, etengabe, aritzen dira bakailao gezatua ekoizten. «Inork ez digu kamioi osorik eskatzen. Pixkanaka doaz eskatzen, egunero edo bizpahiru egunetik behin, saldu ahala. Izoztua, aldiz, paletak edo kamioi osoa eskatzen dizkigute. Egun jakin batzue tan jartzen dugu ekoizpena martxan. Gaur buztanak, bihar bizkarra... produkzioa programatu egiten dugu», esan du.

ARNO MENDIKO URA

Ibanen aita eta osabak sortu zuten Comercial Alkorta Anaiak enpresa 1997an. «Askok uste dute itsas aldekoak direla baina ez, lehorrekoak dira, itziartarrak. Aita Nestle etxearen banatzailea zen. Denetatik banatzen zuen. Bakailaoa ere saltzen hasi zen. Merkatua zegoela ikusi zuen, garai hartan ez baitzen bakailao gezaturik saltzen. Nork bere etxean egiten zuen», gogoratu du.

Anaiarekin enpresa sortu eta bereziki bakailaoarekin hasi ziren lanean. «Hasieran oso maila txikian egiten zuten, inguruko harategietara. Furgoneta hartu eta banatu egiten zuten. Pixkanaka Euskal Herri mailan eta gero estatuan: Huesca, Zaragoza, Madril... eskariak jasotzen hasi ziren», jarraitu du.

Enpresa beti gorantz joan da. 2007an aldatu ziren orain dau- den tokira, aurrekoa txiki gera-

*«Igarri dugu
produktu
merkearen bila
dabilela jendea.
Bakailao ona
saltzea kosta egiten
da. Hemendik
kanpo bakailao
izoztua
kontsumitzen da
eta Euskal Herrian,
gezatua»*



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

tuta. 4.000 metro inguru ditu. «Bakailao gezatuaz gain izoztua ekartzen hasi ginen. Poliki-poliki zabalduz joan ginen eta orain Europa gehienara iristen gara. Baita Hego Amerika, AEB, Hong Kong eta Singapurra ere», kontatu du.

Elgoibarrera urak ekarri zituen. «Bakailao gezatuak bi osagai garrantzitsu ditu: bakailaoa eta ura. Biek izan behar dute onak. Elgoibarren Altzola-ko ura dago, Arno mendi azpitik datorrena. Ez dator urtegitik, ez dago geldi. Ur bizia da, geldia baino askoz hobea», esan du.

Berez ona bada, lantegian ozonizatu egiten dute ura. Eta hoztu. «Ura oso hotza behar dugu, 1-3 gradu bitartean. Tankeetan ura sartu eta hoztu egiten dugu», argitu du.

Alkortatarren bezero gehienak banatzaileak dira. «Eurek jatetxeei, dendei eta handizkari-ri saltzen diete».

Gipuzkoako sagardotegi gehienei saltzen diete bakailaoa. «30etik gora dira gure bezeroak. Zuzenean egiten dugu eurekin lana. Aurretik ditugunak galdu gabe urtero berriren bat gehitzen zaigu. Askok bi

enpresa hornitzaile edukitzen dituzte, ohikoa da», esan du.

Gipuzkoan beraiek ardura- tzen dira banaketa egiteaz. «Hemendik kanpoko beste guztia beste enpresen bitartez egiten dugu».

Islandian erosketak egiten dizkien pertsona bat dute, bertakoa. Tarteka Iban joaten da lantegiren bat bisitatzen. «Sal-menta agenteak ditugu Italian eta Frantzian. Horrez gain, herrialde gehienetan, enpresa banatzaileak», adierazi du.

Zein da bakailao ona? «Ur onetan harrapatutakoa, amukoa. Beste dena gustuaren araberakoa da. Nire ustez bizita- sun puntua behar du, bestela ez du zapore handirik. Jendeak oso zuria nahi du, baina hori- goa izan behar du. Portugalen, adibidez, hori goa nahi dute. Hezurrik gabe ikusten badute esango dizute hori ez dela ba- kailaoa», azaldu du.

Zaletasunak aldatu egin dira. «Lehen bakalada jaten zen, he- zur eta guzti. Bakailao lehorra zen, zintzilik egoten zen eta ez zuen hotzik behar. Gaur egun, baina, jendeak ez du hezurrik nahi, ezta usain eta zapore handirik ere. Ondua, xaflatan

moztu dadila, baina suabea. Lehen gaziagoa zen, sagardo edo ardo botila ondoan hartu- ta jatekoa. Gaur egun jendeak gatz gutxiarekin jaten du eta xerra nahi du».

Eroslearen nahietara molda- tzen dira. «Denetarik daukagu, bezeroaren beharretara egoki- tzen gara. Merkeagoa, bakailao izoztua nahi duzula, badauka- gu. Nahi duzula hobea, baita ere. Gutizia egin nahi duzula eta bakailaorik handienaren azpizun onena nahi duzula, hori ere bai», esan du.

Prezioak behera egin du. «2007an oraingo bikoitza balio zuen. Harrapatzen denaren eta saltzen denaren arabera da hori. Orain prezio nahiko one- an dago. 2007an, bakailaoa lu- xu bihurtu zen, eta beste arrain batzuekin probak egiten hasi ginen», kontatu du.

Hemendik kanpo bakailaoa nola prestatu azaldu beharre- an izaten da askotan Iban Al- korta. «Euskal Herrian ia edo- nork daki bakailaoa pil-pil erara egiten, baina hemendik kanpo uste dute sukaldari pro- fesionalek bakarrik egin deza- ketela, nahiz oso erraza izan», bukatu du.



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

 IKUSMIRA

ESKUTXOA BOTA, EUREN ESKU DAGOELA IKAS DEZATEN

Jolasa da eurentzat, haurrek badute-eta mundua dibern-tigarri eta jostari egiteko gaitasun paregabea. Gure es-ku dago ekimenaren irudia osatu dute plastikoarekin eta eurek ere euren eskutxoak jarri nahi izan dituzte, esku handia osatu nahi dutelako. Plastikoaren beste ertzak heltzen dituzten lagunei begiratzen diete zuzen edo zeharka, jolaskideei, eurek bezala euripean eskua ematea erabaki duten guztiei. Jolasa da eurentzat, baina gutxika ari dira ohartzen jolas honetan heldu askok parte hartzen dutela; ez agian beharko luketen guztiek, baina askok. Gutxika ari dira ohartzen euripean bada ere, kalera irten, bildu eta aldarrikapen jolasean aritzea beharrezkoa dela ezer lortuko bada, jende askok jo-lasten duela egunero-egunero eta handitzen direnean ere jolas horretan jolasean jarraitu behar-ko dutela, gakoa eta geroa euren eskuetan ere badagoelako. maider.eizmendi@gaur8.info

BERMEOKO SUTEA, URTEBETE ETXEAN BEZALA SENTITU GABE

amagoia.mujika@gaur8.info

2013ko apirilaren 11n suak bortitz esnatu zituen. Eraikin batzuk eraitsi egin ziren bizilagunak hanka-hutsik etxetik atera orduko. Beste batzuk larri kaltetu ziren eta nahiko lan berriz altxatzen. Suak hauts bihurtu zituen bitzta asko, eta horiek berreraiki nahian dabilta.

Bermeoko Nardiztar Jon kalean gaude. 16 zenbakian, Arantza Perez Basterretxea-ren atari parean. Ataria badago, baina ez dago eraikuntzarik atzean. Fatxada zutik dago, baina horixe bakarrik. Hautsak hartutako kristaletatik begiratu eta orube zabal bat ikusten da. «Hor zegoen nire etxea, lehen solairuan», kontatu du Arantzak.

“Bermeo Suten 2013” elkarteko lehendakaria da eta atari guztietako familia bakoitzaren istorioa gertutik ezagutzen du. Berena, duela urtebeteko suteak eragindakoa, familia baten oso antzekoa dela sentitu dugu Arantzarekin hizketan hasi orduko. «Gauza txar guztiek daukate alde onik. Lehen bistaz baino ezagutzen ez nuen jendea, kasik agurtzen ez nuena, orain nire familiakoa bezalakoa da. Gauza asko partekatu ditugu; joan-etorriak aseguru etxeetara eta bankuetara, era guztietako izapideak, ezinak, tristurak, trabak... eta gauza horiek asko lotzen dute».

2013ko apirilaren 11ko goizeko laurak bueltan, sua piztu zen Nardiztar Jon kaleko 23an, inor bizi ez zen eraikin batean eta oraindik ezagutzera eman ez diren arrazoiak tarteko. Hego haizeak gogor jotzen zuen eta sua azkar zabaldu zen egurrezko egiturazko eraikinak nagusi diren kalean. Arantza Perez Basterretxearen eraikina izan zen suak harrapatu zuen azkena. «Janzteko denbora izan nuen nik. Bizilagun asko pijamarekin eta etxeko oinetakoekin edo hanka-hutsik atera ziren etxetik. Ni jantzita atera nintzen, etxetik kalera ateratzeko agindu zigutelako. Artean nire etxean ez zegoen surik. Itxaropena nuen libratuko zela. Goizeko zortzietan hartu zuen suak gure eraikina, ezin izan zuten ezer egin. Gurea izan zen suak hartu zuen azken eraikina», gogoratu du egun hartatik urtea beteko denean. «Inoiz ez duzu pentsatzen sekula ez zarenik berriro zure etxera bueltatuko».

Suteak bederatzi eraikin harrapatu zituen eta kalteak zazpi milioi eurokoak dira. Guztira, 70 familia ingururi eragin die triskantzak, baita hainbat lokal eta saltokiri ere, eta 25 familiari eman behar izan die ostatu Bizkai-ko Aldundiak. Lehen orduetan bertan hiru eraikin eraitsi egin ziren -23, 18 eta 20 zenbakiak- eta arratsalde horretan bertan agertu zieten Udaleko teknikariek zertan zen gainontzeko eraikuntzen egoera. «Hasiera batean ez zirudien gurea, 16 zenbakia, oso kaltetua izan zenik. Nire aseguru etxeko ordezkari bat berehala jarri zen nirekin harremanetan eta lasai egoteko esan zidan.

Ostatu har nezala nahi nuen tokian, gastu horiek denak aseguruak bere gain hartzen zituela. Arratsaldean esan ziguten 15, 16, 17, 18, 20 eta 23 eraikinak ‘erabateko hondamen’ izendatu zituztela eta orduan asko aldatzen da egoera. Kasu horietan aseguruak bere gain hartzen du edukitzailea eta edukia, baina ez bestelako gastuak, ostatu hartzea, hondakinak kentzea eta bestelako gastuak».

Esaterako, 15 zenbakia suak baino gehiago urak kaltetu zuen, sua itzaltzeko erabili zuten urak, eta izugarri ari da kostatzen berreraikitzea. «Aseguru etxeek ordaindutako kalte-ordainez aparte, bizilagun bakoitzak beste 60.000 euro inguru jarri behar izan ditu eraikina berriz eraikitzeko. Eta beste kasuetan ere gastuak beti dira kalte-ordainak baino handiagoak. Panorama oso latza da. Kasu askotan hipoteka ordaintzen ari zara, orain ostatu hartu duzun etxearen errenta eta, gainera, zure lehengo etxearen berreraikuntzak ere gastuak dakartza. Eta kasu askotan oso ondo aseguraturutako etxeek ari gara», kontatu du Arantzak.

Bera abokatua da lanbidez eta aditua, nahitaez, aseguru, hondakin, berreraikitze proiektu, lizentzia, kalte-ordain eta era guztietako izapideetan. «Lehen ez nekien ezer gauza hauei buruz, baina nahitaez ikasi behar izan dut urtebete honetan. Borroka asko egin behar izan dugu, fase bakoitzean borroka mota bat».

Borroka ez da bakarkakoa izan, taldean egin dute, elkartuta, horrela indar gehiago egiten delako eta bidea samurragoa delako negar egiteko lagun bat alboan duzunean. «Oso urte gogorra izan da. Egun batetik bestera, eta inolako errurik edo ardurarik izan gabe, zure bizitza hankaz gora jartzen zaizu. Etxerik gabe, ekonomikoki lur jota, bizitza oso bat suak hartuta... oso une larriak igaro ditugu. Negar asko egin dugu. Baina egia da urtebete honetan pasa ditugun unerik onenak bizilagun guztiak elkarrekin egon garen momentu horiek izan direla», segitu du Arantzak bere etxea zenaren orube horri begira.

“Bermeo Suten 2013” elkartea sutea gertatu eta ordu gutxira sortu zuten.

Beheko irudian, Arantza Perez Basterretxea bere etxea zenaren atarian. Eraikin hori ez dute berreraikiko eta datozen asteetan desmuntatuko dute fatxada, egun zutik dagoen zati bakarra. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS




«Azkar konturatu ginen aurretik genuen bidea zaila zela eta onena zela elkartzea eta denok elkarrekin joatea. Apirilaren 13an bertan elkartu ginen eta apirilaren 26rako jada aurkeztu genituen elkartearen estatutuak Eusko Jaurlaritzan». Elkar-teak hasieratik helburu bakarra izan du: Eraikinak eta etxeak berriz eraikitzea.

BORROKA, ETAPAZ ETAPA

“Bermeo Suten 2013” elkartearen bidea etengabeko borroka bat izan dela nabarmendu du aurretik Arantza Perez Basterretxeak. «Gure lehendabiziko borroka aseguruak kobratzeko izan zen. Aseguruekin espero ez dituzun gauza asko gertatzen dira. Izan ere, zuk etxea aseguratzan duzunean, dagoen bezala aseguratzan duzu. Eta gerora egiten dituzun hobekuntza guztiak ez ditu kontuan hartzen aseguru horrek. Ez zara aldiro jotzen asegurua eguneratzera. Eta hori akats bat da. Gero, horrelako gauza bat gertatzen denean, konturatzen zarelako asegurua berez etxeak balio duena baino baxuagoa dela. Baina, tira, kontuak kontu aseguru etxeek ordaindu digute. Eta hori baikorra da».

Bigarren borroka bankuekin izan zuten. Kalte-ordainetan jasotako dirua bankuen hipotekak kitatzeko erabil zezaketen, legez hala egin dezaketelako. «Bankuei eskatu genien ez hartzeko diru hori, gure etxeak berreraikitzen hasteko behar genuela. Eta kasu egin zieten gure eskaerei. Egia esan, eta salbuespenak salbuespen, orokorrean ezin gara kexatu aseguru etheen eta bankuen jarrerarekin».

Bestelako kontua da aseguru etxeek indemnizazioa ez dutela lotu nahitaez berreraiki beharrarekin. Eta horrek zenbait egoera korapilatu egin ditu, Arantza Perez Basterretxearena kasu. «Nik urtebete daramat borrokan eraikin guztiak berreraiki daitezen eta, azkenean, nirea ez da berreraikiko. Gurean hamabi bizilagun gara; hamaika etxebizitza eta jabe berdineko bi lokal zeuden eraikinean. Baina berez lau baino ez ginen bertan bizi, gaintontzekoak bigarren etxebizitzak ziren. Gune hau alde zaharrean dagoenez, fatxadak bere horretan mantendu behar ditugu. Guk 150.000 euro gastatu ditugu fatxada mantentzen, gero eraikina berreraiki ahal izateko. Eta gure buruan berreraikitzea zegoen. Dagoeneko bagenuen aurrekontu bat Bermeoko eraikitzaile batekin, bere irabaziei uko egiteko prest zegoena gainera. Joan den urtarrilean egingako bizilagun bilera batean gehiengoak erabaki zuen ez berreraikitzea. Eta gehiengoak agintzen duenez, horrelaxe



Goiko aldean, Nardiztar Jon kalearen egoera gaur egun. Oraindik oso bistakoak dira duela urtebete izandako sute ikaragarriak utzitako kalteak. Kaltetutako bederatzi eraikinetatik bakarrera bueltatu ahal izan dira bizilagunak. Beheko argazkian, konpontzen ari diren eraikin baten barrualdea. Guztira, zazpi milioi euroko kaltea ekarri du suak. Alboko orrialdean, berreraikitzen ari diren eraikinetako bat eta duela urtebeteko irudi bat, suhiltzaileak sua itzaltzen ari direla. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

geratu gara bertan bizi ginenak: etxerik gabe, ekonomikoki lur jota eta etxerik eraikitzeko batere aukerarik gabe». Panorama latza da, zalantzarik gabe. Eta oraindik ez dira gastu guztiak amaitu. Datozen asteetan fatxada desmuntatuko dute betiko eta horren gastuak ere bizilagunek ordaindu beharko dituzte. «Guztira, 200.000 euro inguruko gastua egin dugu, etxea berriz berreraikiko zelakoan. Eta orain konturatu gara erabat alferrikako gastua izan dela».

Arantzaren kasuan, aseguruak ordaindutako kalte-ordainarekin hipoteka kitatu ahal izan du. «Badira asegurua erabiltzarekin nahikoa izan ez dutenak. Etxerik gabe geratu dira eta, gainera, indemnizazioa kobratu arren, bankuari 40.000 euro zor dizkiote. Pentsa zer nolako egoera».

Arantza Bizkaiko Aldundiak sutearen biktimen eskura utzitako etxebizitza batean bizi da orain. «Urtarrilera bitartean Aldundiak ez digu errenta kobratu eta jo-



an den urteko apirilera eta urrira bitartean argia eta ura ere doan izan genuen. Orain errenta sozial bat ordaintzen ari gara. Nire etorkizuna? Ba Aldundiak uzten didan bitartean etxebizitza honetan egongo naiz eta, ondoren, ba senideren baten etxera joan beharko dut, ez baitzait iritsiko alokairu baterako».

SUFREIMENDU HANDIKO URTEA

Suak kaltetutako bederatzi eraikinetatik bi ez dira berriz altxatuko. Bakarrera bueltatu ahal izan dute bizilagunek oraingoz, eta beste bizpahiru martxa on samarrean ari dira konpontzen. Aste batzuetan amaitzea espero dute. Badira eraitsiak izan ziren eta behetik gora berriz eraiki behar dituztenak. Gainera, horiek ezin izango dituzte lehen zeuden bezala berreraiki, Udalaren Alde Zaharrerako plan berezia aplikatu behar baita. Hori gutxi ez, eta suak harrapatutako batzuk ez dira otsaileko itsas ekaitzetik libre geratu. «Hiru bat arrantzale familia daude tartean. Suteak etxerik gabe utzi zituen eta itsas ekaitzak txaluparik gabe eta lonja erabat kaltetuta. Gainera, itsaso txarra medio, neguan apenas atera diren arrantzara. Egoera oso zailak suertatu dira. Urte benetan txarra izan da jende askorentzat».

Egoera batean edo bestean egon, denentzat izan da oso urte gogorra. «Dirua kostatu zaigu eta bizitza bat galdu dugun sentazioa ere badugu. Suak asko eraman zuen, ez bakarrik dirutan neurtzen dena. Urtea daramagu etxetik kanpo gauden sentazioarekin. Udala, Aldundia, herri-tarrak... ikaragarria izan da jaso dugun laguntza eta elkartasuna. Ezin da deskribatu zer izan den. Baina, hala ere, etxetik kanpo gaudela sentitzen dugu».

Bermeoko Udalaren jarrera nabarmendu du Arantzak behin eta berriz hizketaldian. «Bere esku zegoen laguntza guztia eman digu eta beti egon da gure ondoan, eta halaxe segitzen du». Eta bermeotarren jarrera ere txalotzekoa izan da, «berotasun eta gertutasun handia sentitu dugu gure herritarren aldetik. Izugarria izan da herriaren elkartasuna, hunkitzeko modukoa».

Aldundiak bizilagunen esku utzitako etxeetan bazegoen oinarrizko gauzarik. Baina, akaso, etxean bezala sentiarazten zaituzten gauzak falta zitzaizkien. «Bagenuen arropa garbigailua, baina arropa zabaltzeko pintzak falta zitzaizkigun, edo kafea hartzeko katiluak. Seme-alaben eskolako liburuak berriz erosi behar izan dituzte askok. Uda iritsi zenean ez genuen udako arroparik kaxa batean gordeta... Normalean eskura dituzun eta ain-



Suak harrapatutako batzuk ez dira otsaileko itsas ekaitzetik libre geratu. Badira bizpahiru familia biak sufritu dituztenak beren azalean, sua eta ura. Etxerik gabe, txaluparik gabe eta lonja erabat kaltetuta geratu dira

Pasai Trintxerpeko suteak barrenak astindu dizkie Bermeoko sutearen biktimei. «Denboralditxoa generaman bareago, negarrik egin gabe, eta Trintxerpeko irudiak ikusita negar asko egin dugu. Ederra datorkie haiei ere»

tzat hartzen ez dituzun gauzak botatzen dituzu faltan, mikrouhin labearen tapa, esaterako». Argazkiak, etxeko oinetakoak, sofarako manta, bidaletako oroitzapenak, hondartzan bildutako maskorrak... «Askotan sentitu dugu bizitza oso bat utzi dugula han barruan, gure etxeetan».

Esan bezala, urtea gogor antzera joan da. Eta sasoi txarrenetakoa urte hasieran igaro zuten, Pasai Trintxerpeko sutearen ondorioz. «Kolpe latza izan zen guretzat. Gure sutea berpiztea bezalakoa. Negar asko egin ondoren, denboralditxoa generaman bareago eta berriz negar asko egin genuen egun horietan. Ederra gertatu zaie, eta oraindik etorriko zaiena. Harremanetan gaude haiekin, eta ahal dugunean laguntzeko prest gaude noski».

Datorren apirilaren 11n, sutea eta urtebetera, «Bermeo Suten 2013» elkarteak hitzordua jarri du herriko Kafe Antzokian. Hainbat artistak borondatez emandako artelanak zozketatuko dituzte, bidelagun izan dituztenekin elkartuko dira eta, ospatzekoa ez bada ere, beren bizitzak aldatu zituen eguna gogoratuko dute triskantzatik atera duten parte onenarekin, elkartasunarekin.

Arantzari, gaiaz luze hitz egiten duen aldiro bezala, ahotsa hausten hasi zaio. Gaurkoz, nahikoa. Mila esker zure etxea zenaren ateak zabaldu dizkiguzulako.





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Bidexka

Ez dena bazen garaian ikasi nuen bide hauetan ibiltzen; baso ilunean hormigoizko bidexka zuri estu bat zegoen garaian. Bizikleta gorri batekin gogoratzen naiz; kasko zuri bat eta aitaren gurpil handiagoko bizikleta aurretik, haizea kentzen, eta nire hanka laburregiak pedalei bultzaka tiraka indarka, katea hautsi nahian, ihes egin nahian eta bidea, zuhaitz bihurtune aldapa desordentuetan galtzen zen bide zuri estu hura, udazkenean hosto eroriek inauterietan bezala moztortzen zutena eta orain ez den hori basotik begira, dardarka jartzzen ziren hostoak eta ulu egiten zuten haizeak, amonaren ahotsa adarrik adar jauzika, emakume bihurtzera doazen katu beltzei deika, zirenik esan nahi ez genuen eta ez zirenik esatera ausartzen ez ginen sorginei deika eta bide hau berriz ere, sekula bukatzen ez zen bide hau, baso ilunetan galdu eta gau beltzetan ametsetan esnarazten ninduen bide zuri estu hau, denbora bezain bihurtunez betea, loa bezain estua. Ez dakit, ordutik beti pentsatu izan dut askatasunak izerdi hotzaren zaporea izan behar duela.

Hitz berriak ikasi genituen gero, “iraultza”, “etorkizuna” eta ahoa gehiegi betearazten diguten horietakoak. Uda-ko arratsalde sargoriak Tourrari begira igarotzen genituen, eta bide zuri estu honetan galtzen ginen goizetan. Pixkanaka aitaren gurpila atzean uzten hasi ginen, haizeak beti ez duela bizkarretik jotzen ikasten, badakiela saihetsetik jo eta bide bazterrera botatzen, badakiela aurretik jo eta kilometroak luzatzen, baina berdin zigun, ipuinak aditzen genituen oraindik adarretik adarrera jauzika eta, guk ere, letrak ikusten genituen lurlean idatzita –“iraultza”, “etorkizuna”–, pixkanaka estuago bilakatzen ari zen bidexka honetan. Askatasuna hori zela pentsatu genuen: bila jardutea. Eta aurrera jo genuen Usurbilera, aurrera Arratzainera, aurrera Igeldora, Oriora, eta bide zuri eta bide beltzetan galdu ginen; bide lokaztuetan urratu genituen belaunak, pedalei bultzaka tira indar egiten genien katea eten nahian baina aurrera jarraitzen genuen

beti, aurrera aurrera eta aurrera, akaso katea delako ihes egiten irakasten diguna, aurrera jo genuen eta atzean utziz joan ginen errepide estuetarako zabalegiak ziren hitzak, udazkenetan orbelak urtero estaltzen zituen hitzak.

Goroldioa haziz joan zen “iraultza”ren gainean; hormigoia urratu zen “etorkizun”ean eta guk aurrera jarraitu genuen bide zabalagoen bila, ez denik ez den garaietara heldu ginen ia mundua irensteko gure grinaz, egi eta begi berriak deskubritu eta irentsi genituen eta hondeamakinak etorri ziren gure gau urrunetaraino heltzen ziren bideak berritzera.

Orain sareak hazi zaizkigu begietan eta sarearen atzetik galdetzen didazu zer den askatasuna, ume garaietako zein ipuin den hainbestetan kontatzen dizudan hori baina ahaztu zait, aspaldi utzi nuen bizikleta lokaztua garajejan eta asfaltoz estali zuten hormigoizko zuria;

hesiak jarri dituzte alde banatan, hormigoizko hormak, eta ez dabil amonaren ahotsik adarretik adarrera, kamioiren bat tarteka gasolindegira bidean eta gauaren gortina beltza gure umetako belaunak bezala urratzen duten farola garaiegi horiek, baina zuk berriz galdetu didazu zure begietako sareen atzetik askatasuna non dagoen eta nik lurra seinalatu dizut; zerua lehertu da udaberriko lehen egunetan eta txorikumeak erortzen ari dira, lumarik eta hegorik gabeko txorikumeak kazkabarra bezala, habiatik azkarregi ihes egin nahi izan duten txorikumeak, hegan ikasi gabeak, eta hemen ez dago ipuinik, azkarregi abiatu ginen eta autopista hotsak apurtzen du isiltasuna; jada ez dakit bidean noan edo bideak naraman baina zer axola du jada; askatasuna zer den galdetu didate zure begi saretuek, zergatik idazten dudan beti berari buruz. Akaso, ez dena koaderno narras honetan baino ez delako. •



THINKSTOCK

{ koaderno } **Koldo Almandoz**

Zunzunzitoa

Azken aldian, “hiri ornitologiak” izeneko filmaketa katalogoa osatzen ari naiz. Hegaztiak ingurune urbanoetara eta gizakiak bizi diren eremuetara nola moldatzen diren jasotzen duten grabazio amateurak. Filmaketa horietan, zoritxarrez, ez da azaltzen zunzunzitorik.

Ez da erraza. Zunzunzitoa, Kubako Isla de la Juventud-en bizi da soilik eta euli txori edo ezti elfo ezizenez ere ezaguna da. *Mellisuga Helenae* izen zientifikoa Johann Christoph Gundlach naturalista alemaniarrek eman zion 1844. urtean. Mellisuga (nektar xurgatzailea) Helenae, Kubara gonbidatu eta ostatu eman zion Carlos Booth adiskidearen Helena emaztearen omenez. Ez didazue ukatuko zunzunzitoaren izen zientifikoaren harira iradokitzen dena eleberri baten abiapuntu itzela ez denik.

Zunzunzitoa kolibrien espezierik txikiena da, eta hori esatea asko esatea da. Mokotik isatsera 5 zentimetroko luzera du. 1,8 gramoko pisua. Habiak 3 cm eskas izaten ditu. Zunzunzito arra munduan existitzen den odol beroko animalia ornodun txikiena da, txorien artean lumarik gutxiena duena eta, 40 gradurekin, hegaztien artean odol tenperaturik handiena duena. Jaten dagoenean, segundoko 80 aldiz astintzen ditu hegoak. Txortan, 200 aldiz. Animalia guztien artean erritmo kardiako azkarrena duena. Errekor apurtzailea da zunzunzitoa. Makina perfektua.

Honaino agoantatu duzue-nok zuen buruari galdetuko zenioten, zergatik hitz egiten digu sasi David Attenborough honek zunzunzitoaz? Nagusiki bi arrazoiengatik.

Baga. Izena izugarri gustatzen zaidalako. Zun-zun-zito. Txoritxoaren hegaldiak ateratzen duten soinuaren onomatopeia garbia. Zun-Zun-Zun-Zun. Eta tamaina ñimiñoa adierazten duen *ito* maitekorra. Errepika ezazue izena segidan. Zunzunzito-zunzunzito-zunzunzito, dantzan jarri ez bazara ez duzu odolik zainetan. Kubako son, danzon, salsa, rumba, guaracha...

Biga. Kolibri bat delako. Naturaren perfekzio mailaren erakusle. Edozer norabidetan hegan egin eta hegaldian geldirik geratzeko gaitasuna duen muskulu indartsuko atleta. Lore asko gorriak izatearen arrazoia kolibriei zor diegu. Erleek eta kolibriek elikagai bera izanik, lehiakide izaten dira, baina intsektuek ez bezala, kolibriek euria maite dute. Hori horrela izanik, landareek nahiago dituzte kolibriak polini-

zaziorako. Intsektuak daltonikoak direnez, landareek gorri koloreko loreak garatuz erakartzen dute kolibrien arreta. Kolibrien eta landareen harremana hain da espezializatu eta eskusiboa, kolibri espezie batzuek lore zehatz baten nektarra biltzeko moko tamaina eta forma berezia garatu dutela, giltzaren eta sarrailaren moduko harreman perfektua lortuz.

Kolibriek, baina, beti egon behar dute gastatzen duten energia guztia berreskuratzen. Goi mailako atleten moduan, beti dabilta muturreko ariketa-elikatze ekuazio horretan indar guztiak xahutzen. Edozer ezustekok ekuazio horren emaitza hilgarri bihurtzen du.

Beren elikagai eskusiboari lotua daude. Beren mokoaren forma duten lore horiek edozer arrazoi dela eta desagertzen direnean, kolibri espezie horrek bereak egin du.

Eta bat-batean gu ez ote garen kolibri bihurtu pentsatu dut. Ez ote diogun gutariko askok kolibri bihurtzeko bideari ekin. Txikitatik espezializaziora bideratuta. Zientziak edo letrak, ikasketak, espezializazio masterrak, modulu bere-

Egoera berrien aurrean izoztuta geratzen gara. Galdu egin dugu moldatzeko gaitasuna. Lore zehatz batean aditu izateko ematen diogu forma gure mokoari

ziak... behin bide bati ekinez gero amaierara arte jarraitzen diogu. Egoera berrien aurrean izoztuta geratzen gara. Galdu egin dugu moldatzeko gaitasuna. Lore zehatz batean aditu izateko ematen diogu forma gure mokoari. Eta “aditu” eta “berezi” izateko bide horretan ez ote garen beti itota bizi, muga, egunero ia gure indarrak galtzen hala moduz aurrera ateratzeko. Eta elikagai bihurtu zaigun lore hori desagertzen denean, zer gertatzen da gurekin, zunzunzito gaitxoekin?

Hausnarketa petral samarra da, bai. Egungo gizartearen metafora gisa ez da beste munduko ezer. Azalpen hobeak irakurri dituzu, jakina, baina horietan ez zegoen zunzunzitorik. Ez zunzunzitorik, ez eta hura deskubritzean bere lagunaren emaztearen izenarekin bataiatu zuen naturalista alemaniarrik ere.

Zunzunzito-zunzunzito-zunzunzito... •

Madrilen jaio arren, borrodatezko erbestera-tzeak ekarri zuen gure artera. Literatura du espresatzeko bide eta gidoigintzak eman zizkion lehen sosak. Kameraren atzeko lana eskolara eramanez eta etorkizuneko belaunaldiak imajinan alfabetatuz eman zituen bi belaunaldi. Egun, literaturan murgilduta, “La verdadera historia de Matias Bran” eleberriaren bigarren alea prestatzen dabil.

Oso gaztetatik aritu zara gidoilari lanetan.

17 urterekin eta “Barrio Sesamo” saio mitikoan lortu nuen nire lehen lanpostu ofiziala. Aurretik, baina, 15 bat urterekin edo, lantxoak egiten nituen. Beste pertsonak nire lana sinatu eta sosa batzuk ematen zizkidaten. Irratirako aritu nintzen horrela.

Gidoilari izatearekin amesten al zenuen umetan?

Egia esan, ez. Are gehiago, ez dut inoiz gidoilari gisa aritzea erabaki. Umetan idazten eta margotzen igarotzen nuen eguna. Idazlea izan nahi nuen.

Zerk eraman zintuen orduan gidoilari izatera?

Beti izan naiz oso pertsona independentea. Barkatu, pertsona baino, emakume independentea esan beharko nuke! Nire diru sarrierak edukitzea gustuko izan dut beti, eta, ez dut inoiz inoren beharrik eduki. Hemezortzi urterekin etxetik kanpo bizi nintzen ordurako. Eta beti bakarrik aurkitu dut bizitza aurrera ateratzeko modua. Virginia Woolfek zioen independentzia ekonomikoa boterea dela. Ni erabat nator horrekin. Inoren menpe egon behar ez izateak libreagoa izaten laguntzen du, eta zure buruari traizioa ez egiteko aukerak murrizten ditu.

Ikasketaz filosofoa zara.

Hala da, Filosofia ikasketak egin nituen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Behar pertsonal batek bultzatu ninduen ikas-

«Gidoilari moduan atera nuen bizitza aurrera eta, nire bokazioa

hezkuntzan aurkitu banuen ere, umetan idazle izatearekin egiten nuen amets»

«Artean ez dago neutraltasunik. Artistikoki adierazten zaren unetik posizionatzen zara. Kontrakoa dioenak, gainera, gezurra dio»

ketetara, ez nuen bizitza aurrera ateratzeko aukeratu. Galdera asko nituen eta ikasketek asko argitu zizkidaten. Gaitasun asko ere eskuratu nituen: analisi eta antolakuntza gaitasuna, pentsamendu sakontasuna...

Zer-nolakoa da gidoilarien ofizioa?

Sortze lan bat da, baina, oso-oso prekarioa. Ez duzu segurtasunik, ez garantiarik, ez deus... Oso pertsona gutxi bizi da gidoigintzaz, eta emakumeak, are gutxiago. Tamalez, ikus-entzunezkoa gizonen mundua da baita ere. Lan mota honek, alabaina,

defentsa asko ematen dizkizu, egokitze gaitasun handia. Badakizu nola edo hala aurrera aterako zarela, zer edo zer aurkituko duzula eta horrek konfiantza ematen dizu. Pertsona oso antolatua izatera behartzen zaitu, baina, era berean, denbora nahi moduan antolatzeko aukera eskaintzen dizu.

Egin dituzun lan gehienak umeei zuzendutakoak dira.

Bai, Espineterekin hasi eta “La bola de cristal” saioan aritu nintzen ondoren. Marrazki bizidun askotan ere ibili naiz, tartean, “Willy Fog” edo “Zipi eta Zape”.

Pantaila handian aritu zara?

Zinemarako gidoi batzuk egin ditudan arren, ez dira inoiz pelikula izatera iritsi. Hala ere, orain gutxi dokumental bat zuzendu dut. “Será feminista o no será”, feminismoak Nafarroan izan duen historia jaso dugu eta lehen aldiz egin ditut zuzendari lanak.

Zuk egindako zein gidoi duzu gustukoena?

Egia esaten badut, inoiz ez dut egin gustatuko litzaidakeen gidoi hori.

Eta beste alor artistikoetan, zein da zure obra preziatuena?



«Nik beti txikira egiten dut apustu; mundua aldatu beharrean, mundua aldatuko duen belaunaldia hezi nahi izan dut»

Hau entzutean zuzendari guztiek akatuko nautela jakin arren, nire ustez ikus-entzunezko munduan ez dago jabetzarik. Niretzako lan guztiak kolektiboak dira. Ez badugu denok elkarrekin lan egiten, ezerk ez du funtzionatzen. Edozein proiektutan nik nire aletxoa jartzen dut, nirea den zer bait bezala sentitzen dut eta horrela murgiltzen naiz, baina denona da. Horixe da prozesuen alderdi polit eta aberatsena.

Zerk ekarri zintuen Euskal Herrira?

Aita Bilbokoa nuen eta amona-amaren ama-nafarra. Haur-

tzaroko oporraldi asko Euskal Herrian eman nituen eta oso gustukoa nuen. Benetan etorrazazi ninduen, baina, borondatezko erbesteratze bat izan zen. Nire amak, Lolo Ricok, "Televisión fabricada en mentiras" liburua idatzi eta gogor salatu zuen telebistaren manipulazioa. PSOE zegoen orduan Gobernu espainolean eta errepre-salia gogorrak hartu zituzten nire amaren eta bere ondorengo-aren aurka. Ikus-entzunezko munduan betatuta egotera iritsi ginen. Banandu berri nengoen, gainera, eta nire ahizpa Euskal Herrirantz zetorrela ikusita, harekin etortzea erabaki nuen. Nire alabak hiru urte besterik ez zituen Donostiara iritsi nintzenean. 1994. urtea zen hura.

Euskal Herrian bira ederra eman zuen zure bizitzak, ezta?

Hasiera batean Donostian egonda ere, Interneti esker, Madril eta Bartzelonako ekoiztetxeetarako gidoiak egiten jarraitu nuen. ETBrako ere lan egin nuen, 64 telesailean, adibidez. Baina, bai, Donostiara etorri berri-ritan hezkuntzan murgildu nintzen. Nire benetako bokazioa deskubritu nuen bertan.

Nolatan eman zenuen jauzia?

Urritasun garaia zen hezkuntzaren alde egin nuenean. Apustu arriskutsua egin nuen eta irakasle moduan trebatu behar izan nuen. Aspalditik egiten nituen gidoiak, baina ez nekien gidoiak nola idazten ziren. Nik neuk ikasi behar izan nuen lehenengo.

Adin guztietako ume eta nerabeekin aritzen zinen, ezta?

Bai, 5 eta 18 urte arteko ikasle mordoa trebatu ditut; etorkizuna, azken finean! Larrotxene kultura etxean hasi nintzen eskolan ematen; bertan, ikus-entzunezko modulua sortzeko aukera izan nuen eta esperientzia zoragarria izan zen. Nik ez nuen erakusten, nik jendeari eginarazi egiten nion. Aholkularitza egiteaz gain, bitartekoak doan uzten genituen, bai eta harreman sareak sustatu ere. Ikasleen produkzioa ikaragarrikoa zen.

Gure lana erreferentzial bilakatu zen.

Gustura aritzen al zinen?

Nik nekiena besteei erakustea gogoko nuen, baina intentzio politiko batekin egiten nuen. Gidoia erakusten nuen bai, baina jende kritikoa sortzeko helburuz. Ikus-entzunezko mundua, arma eta babes ezkutu bezala erabiltzea nahi nuen. Irudiak aztertzeko eta sortzeko gaitasuna izatea nahi nuen, ikus-entzunezko alorrean ere jabetzea, finean. Jende aktiboa sortu nahi nuen, borrokatzeko gai dena. Helburu hori gabe, hezkuntza ez litzateke funtsezkoa izango niretzat.

Beti mundua aldatu nahian?

Ez pentsa. Nik beti txikira egiten dut apustu; mundua aldatu beharrean, mundua aldatuko duen belaunaldia hezi nahi izan dut. Sistema kapitalista aldatuko duen belaunaldia, hain zuzen ere. Telebista eredua aldatzeko nahitaezkoa da sistema kapitalistarekin bukatzea.

Eta beti gazteekin.

Dena dago lotuta. Perspektibarekin ikusita, loturaz ohartzen naiz orain: umeei zuzendutako saioetan lan egin ez banu, ez nintzateke gero gazteen hezkuntzan arituko.

Zer da imajinan alfabetatzea?

Irudiak irakurtzen jakin eta horien aurrean kritikoa izatea da gakoa. Ideologikoki esan nahi dutenaz ohartzea, ondo erre-ali-zatuak dauden edo ez baloratze-ko gaitasuna izatea... Azken finean, irudien aurrean erabateko pasibotasuna ez izatea da kon-tua. Hori, gainera, umetatik egin behar da, telebista zurrupatzen dutelako.

Ez zara askotan telebista aurrean jartzen diren horietakoa izango...

Ba, orain inoiz baino gehiago. Eskizofrenia garaia gainditzen duzunean, gaizki eginda dagoen eta erabat matxista den pelikula erromantiko baten aurrean, pelikula osoa negarrez igaro deza-kezu. Emozionalki disfrutatzea

ISABEL

ALBA RICO

IRUDIAN ADITUA

Espineteren atzean ezkutatu zen lehenengo. Zipi eta Zape edo Willy Fog etorri ziren ondoren. Gidoigintza eskolara eramán zuen ostean. Literaturan murgilduta dabil orain.

oihana.llorente@gaur8.info

eta gaitasun kritikoa edukitzea ez daude lehian!

Zergatik utzi zenuen Larrotxene eskola?

Hamabost urte generamatzan lanean, modulua ezin hobeto zihoan, baina modu oso prekarioan aritzen ginen. Gure borondateaz baliatzen ari ziren. Kontratua bukatzeaz zegoenean, baldintza egokiagoak exijitu nizkion Donostiako Udalari, garai horretan PSOeri. Ez zuten uste alde egiteko determinaziorik izango nuenik, baina izan nuen. Inorekin ezkontzen ez naizen horietakoa naiz, galtzeko ezer ez dut eta nire buruarekin kontsekuente izateari garrantzitsu deritzot. Behar publiko bat egoitza publiko batean asetzen nuen. Hori zen nire lema, eta, gaur egun aldarrikapen hori gogo biziz errepikatu beharko litzateke.

Ez zinen, baina, bakarrik joan.

Ez, irakasle taldea eta ikasleak nirekin etorri ziren. Larrotxene hiru hilabetez itxita eduki behar izan zuten. Guk, aldiz, eskolekin jarraitu genuen, Easo Politeknikoan utzi zizkiguten geletan.

Formazioa albo batera utzi eta literaturara egin zenuen salto ondoren.

Bai, irakasten jartzen nuen energia idazten jarri nuen. Hala ere, eleberriekin buru-belarri jarriurretik, 2011. urtean, “Kameraren atzetik: Irudien bidez narrazioak egitea” liburua idatzi eta argitaratu nuen. Nire barruan dudanez hezitzailearen ondarea da, legatu moduko bat. Nik dakidan hori edozeinen eskura jarri nahi nuen liburu honekin.

Eta ordutik literatura duzu lehentasun?

Nire espresatzeko modua literatura izan da beti. Gidoilari moduan atera nuen bizitza aurrera, eta, nire bokazioa hezkuntzan aurkitu banuen ere, umetan idazle izatearekin egiten nuen amets. 2003an argitaratu nuen nire lehen nobela, “Baby Spot”, eta, 2011. urtean “La verdadera historia de Matias Bran” eleberriaren lehen aleak ikusi zuen argia. Orain frantsesez aterako

IBILBIDEA 1959an jaio zen Madrilén.

Telebistak azkar harrapatu zuen Lola Ricoren alaba eta kameraren atzean eta Espineterekin eman zituen gidoigintzako lehen urratsak. Hogeitaz bete ditu gure artean eta hezkuntzara salto egin zuen Donostiara iritsi eta berehala. Literatura eta aholkularitza ditu orain jomugan.

da. Euskaraz lehenago ateratzea gustatuko litzaidake baina oraingoz, ezin.

Zertan zabilta une honetan?

“La verdadera historia de Matias Bran” eleberriaren bigarren zatian murgilduta nago, trilogia bat da-eta. Tartean beste nobela bat idatzi dut, gizon eta emakumeen arteko harremanen inguruan, baina errekamaran utzi dut. Ez diot editoreari ere bidali.

Berezia da eleberria.

Bai. Historikoa da, baina, aldi berean gaur egunaz ari da. Guden arteko iraultza egoeran dago kokatua, baina gaur egungo elementuei keinuak eginez. Per-tsonai gehienak, indarra duten



horiek bereziki, emakumeak dira. Historian beti isilduak izan diren emakumeak. Konprometitu da politikoki.

Hamaika modutan, baina, beti konprometitua?

Artistikoki adierazten zaren unetik, posizionatzen zara. Kontrakoa dioenak gezurra dio. Bertolt Brechtek zioen neutralek beti egiten dutela botere nagusiaren alde. Hala da, artean ez dago neutraltasunik. Literatura politikoa eta konprometitua idazten dudala esaten didate niri. Nik, aldiz, literatura idazten dudala erantzuten diet. Nire obran, gainontzekoenetan bezala, idazlearen begirada dago, posizio ideologikoa. Banandu ezin

den begirada da hori. Begirada guztiak politikoak dira eta nik, noski, intenzionalite politiko bat dut nire liburuetan ere. Gai nontzekoen begiradak ere esnatu behar direlakoan nago, ohar-tu eta botereari men egiteari utz diezaioten.

Itxura ere berezia du eleberriak.

Genero narratibo desberdinak erabiltzen ditut espresatzeko: gidoia, poesia, antzerkia, literatura... baita marrazkiak eta irudiak ere. Denak uztartzeko beharra sentitu nuen. Sortzailea denak, nire ustez, modu desberdinak behar ditu agertzeko. Bilaketa modu desberdinak dira, azken finean. Nire ibilbide guztia

lotuta dago, bata bestean eragiten du eta argazkilaritzak ere nire obran eragina izan du.

Argazkilaritzan ere aritu zara, orduan?

Margotzea izan dut gustuko umetatik. Argazkiarekin esan nahi duzunak baino, kalitate teknikoak hartzen du garrantzia. Teknikak esanahia eklipsatu egiten du. Hala uste dut nik, behintzat. Egun batean, baina, telefono mugikorrarekin ia nahigabe nabilela argazki bat atera eta argazkilaritza deskribitu nuen. Argazkiekin margotzea erabaki nuen, kalitatea degradatu eta esanahiari lehen-tasuna emanez esperimentuak eginez. 2011n hainbat erakusketak egin nituen.

Euskaraz eta umeei zuzendutako saio batean ikusi dugu zure sinadura.

Bai, Txantxariak saioan. Euskarar ardatz eta euskal abesti eta jolasak transmititzea helburu duen telebistarako saioan. Ur-txintxa eskolarekin batera aritu nintzen.

Zuk, baina, ez dakizu euskaraz.

Ez. Nik hemen bota ditut sus-traiak, baina euskararekin beti izan dut zorra. Hala ere, oso modu desberdinetan saiatu naiz zor hori kitatzen. Lehenik eta behin, nire alaba euskaraz eta Euskal Herrian heziz. Bigarrenik, “Kameraren atzetik” liburua euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean argitaratuz. Eta azkenik, Txantxariak egitasmoan parte hartuz.

Txantxariak egitasmoarekin Isabel Albaren beste alderdi bat ezagutu dugu.

Bai, hezitzaile alderdia aholkularitza zuzendu nuen. Nik gidatu besterik ez ditut egin.

Lehen aldia zenuen aholkulari lanetan, baina ez da azkena, ezta?

Ez. Dokumental batekin ari naiz orain. Emakume baserri-tarren inguruko erreportajea da eta euskaraz eta gaztelaniaz izango da. Ez dut ezer gehiago aurreratuko. Oso pozik nago lan honetan ere.

POSTMODERNO XELEBREAK

Beti korrika eta presaka gabiltzanon gorabeherak.



NO TIME FOR LOVE



Batera

Antton Izagirre

Azken konferentzian "Independentistak" sareak aditzera eman zuen agirian, orain arte ohikotzat har zitekeen pentsaera abertzaletik haratago, beren burua espainiarizat izanik erabakitzeke eskubide demokratikoaren alde leudekeenak ere Euskal Estatua sortzeko proiektura batzeko nahiari egiten zitzaion erreferentzia. Ekarpen berritzailea nolanahi ere, kontu eginik urte askotan Euskal Estatuaren ideia modu esklusiboan abertzaleen ondareztat hartu izan delako.

Pentsaera hark bazuen logika bat: espainiar nortasuna euskal nortasunari kontrajarrita eraiki izan da geure artean urte lu-

zetan. Baina, nola imajinatu jatorri espainiarra izanik, jatorri eta nortasun horri uko egin gabe, Euskal Estatu berri baten alde jardutea? Abertzale askok egin izan dugun galderari maiz ezkortasunez erantzun izan zaio.

Horri lotuta, azken aldian, Kataluniaren independentzia prozesua dela eta, hango zenbait mugimenduren berri izan dugu eta horien artean deigarria iruditu zaigu "Súmate" gizarte mugimenduak eman duen urratsa eta lortzen ari den arrakasta.

Jatorri espainiarra izanik Katalunian bizi diren gizon eta emakumeek eraba-

kitzeko eskubidearen alde aktiboki mobilizatu dira, egin diren mobilizazio jendetsuetan.

Deigarria gertatzen da espainiar nortasuna harrotasunez aditzera ematen ikusi eta entzutearekin batera Kataluniar estatu berri baten aldeko hautua egitea. Berritzailea, identitateari uko egin gabe Kataluniako Estatu berri batean etorkizun oparoagoaren alde egiten duten aldarria.

Sinetsita gaude, borondate bertsuko euskal-espainiarrekin batera, Euskal Estatua eraikitzea ere errazago izango dugula. •

HARREMANAK EZBAIAN

Maitasun erromantikoa versus maitasun askea

 JENDARTEA / oihana.llorente@gaur8.info

Laranja erdia al gara? Ala osorik zukua ateratzeko modukoak? Agian, marrubiekin nahastuta gozoagoa da nahasketa... Oraindik ere, gizon eta emakumeen arteko harremana instituzio bat den arren, polimaitasunak eredu anitzak marrazten dizkigu iruditegi kolektiboan. Teoriaren eta praktiken gaineko hausnarketaren kronika da honakoa.

Ma itasun erromantikoa versus maitasun askea. Hala zuen izenburua Say Lindell Malagako aktibista sozial eta psikologoak Irungo Lakaxita gaztetxean gidatu zuen tailerrak. Maitasun erromantikoarekiko kritikak eta librearekiko zalantzak erakarri zituen tailerrera bertaratuak. Elkarrekin eta modu dinamikoan lehena desegiten eta bigarrena eraikitzen aritu ziren. Buruan, behintzat, batetik besterako bidea marraztuz.

“La Ruptura sentimental, del amor al duelo” liburuaren egilea da Lindell. Ikasketez psikologoa, karrera bukatzeaz zuela, bikote-kidearekin zuen harremana eten eta desamodioaren bide malkartsua ibili beharrean aurkitu zen. Izaeraz obsesiboa, bere barnean sentitzen zuen minak burrunba egin eta ondokoen mina arakatzeari ekin zion. Bakoitzak modu batean sentitu arren, maitasunaren arantzak eragindakoak denek sentitzen dituztela ikusi zuen. Min horren gakoak erdituz, baina, liburua idatzi eta bihotza osatu zuen Lindellek. Ikerketa eta azterketa askoren

Say Lindell Irungo Lakaxita
gaztetxean gidatu zuen
tailerrean.
Gorka RUBIO| ARGAZKI PRESS



ostean, maitasunaren gaineko ondorioak ere atera zituen. Eta egun tailerrak ere ematen ditu berak ondorioztatutakoa nahi duten horiekin partekatzeko.


Harreman eredu menderatzaile bat egon badagoela da Lindellek atera duen ondorio nagusia. Eta hura heterosexuala, monogamia eta itxia dela sostengatu du. Historiari erreparatuz, gainera, maitasun erromantikoa gisa ezagutzen dugun ereduaren Erdi Aroan eta Europa mendebaldeko nobleziako kideen artean asmatutako hitzarmen batean oinarritzen dela dio Lindellek. Finean, legatua aitortutako seme-alabei zuzentzeko akordioa besterik ez zela uste du.


Bi arrazonomendu eman ditu erromantiko jotzen dugun maitasun hau azaltzeko. Lehena, magikoa, eta zaku horretan kokatu ditu laranja erdiaren edota printze urdinaren kontzeptuak. Azalpen biologikoaren barruan, aldiz, ugalketarekin hartu-eman zuzena duten argudioak kokatu ditu.

Maitasun askea edota polimaitasuna jarri ditu arbelaren beste erpinean. Elkarren arteko akordio batean oinarritutako harreman hauek definizio eta forma anitz hartu ditzaketela aipatu zuen. Bikotez kanpoko harremanetatik hasi eta komunaraino, adibidez.

Polimaitasuna aukera moduan agertzeari garrantzitsu deritzo Lindellek. Erlazioak modu oso eta askeagoan bizitzea ahalbidetzeaz gainera, sistema astintzeko ahalmena duen harreman ereduaren dela sinetsita dago-eta: «Jendarte kapitalista eta patriarkalaren zirrikituetatik aldentzeko aukera eskaintzen du, eta ezarri nahi zaigun indibidualismoa uxatzeko ere».

Afektuak beste modu batean kudeatzeko aukera eta esperientziak egon badauden arren, eredu normatibotik aldentzea





Lehentasunak

Naiara Garzia

Batzuetan Bizitzak garra-sika dei egiten digu,

adibidez, ustekabeen gure gertuko norbait hiltzen denean edo gaitza gure bizitzan sartzen denean, ezustean.

Mundua biluztu egiten da orduan eta ikusten duguna bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka hori da, hirietako semaforoek, beti bezala, gorri eta berde jartzen jarraitzen duten bitartean.

Azalekoa den guztia desagertzen da orduan, gure egunero-kotasunarekin lotzen gaituzten zera guztiak: lana, ordutegiak, dirua, hipoteka... Gertuko pertsona bat hil eta gero etortzen den minak edo urte askotan gaitz baten aurka borrokatu eta gero itzaltzen ari den pertsona baten sufrimendua ikusteak buru argitasun bat ematen digu, bat-batean seigarren zentzumen bat jaioko balitzaigu bezala.

Mundua berriro sortu izan balitz bezala, beste argitasun batekin azaltzen da: zerua urdinagoa da orduan, edo grisagoa, eta euri tantak argiagoak.

Duela belaunaldi bat, herrietan norbait gaixotzen zenean elkarri laguntzen zioten etxe-koek eta auzokoek; hori zen lehentasuna.

Lanean oinarritutako gure gizarteak, aldiz, ez digu eskuzabalak izaten uzten gaixo batek merezi dituen dedikazio eta maitasunarekin.

Egungo gizartean, norberaren lana eta hitzarmena kontuan hartuta, zenbat egun dagozkigu hiltzorian dagoen pertsona bat zaindu eta berari ahal ditugun besarkada guztiak emateko, bere ondoan eseri eta eskutik heltzeko, egoeraren gogortasunaren barruan heriotza duin eta goxo bat izan dezan? Zenbat denbora uzten digu gure gizarteak horretarako? •

ez da egiteko erraza. Hala on-dorioztatzen du, bederen, Lindellek. Umetatik ikasi ohi dugu maitasun erromantikoa gurea ez den sexuko pertsona bakarrera mugatzen dela. Hala programatzen gaituzte. Eta harremanekin hasteko unean kaxoi horretan sartzea da ohikoen. Ados agertu ziren entzuleak eta Disneyren biktimak garelara esatera iritsi zen bat baino gehiago: «Umetatik edoskitzen duguna da, ipuinetan, filmetan...».

Bizitzaren erdigunean kokatzen da gizon eta emakumearen arteko bikote harremana. Mitifikatutako harreman hau jendar-tea antolatzeke modu naturalizat jotzen da, eta hortik ateratzen denak garesti ordaintzen du.

Hausnartuz, ebakiz, eztabaidatuz, itsatsiz, galdetuz edota koloreztatuz harreman sexu afektiboan premia eta beharrak mahai gainean jarri zituzten parte hartzaileek. Collageren bidez norberaren beldurrak eta teoriatik praktikara salto egiteko argudioak agertu zituzten.

Kontraesanak landu. Horixe da urratsak eman aurretik gainditu beharreko langa gogorrena. Gure burua maitatzeari eta norberaren autoestimua lantzeari ere garrantzia eman zioten. Finen, gu izango baikara, nahita edo nahigabe bizitza osoan zehar, gure buruarekin egongo den pertsona bakarra. Iruditegi kolektiboan gizon eta emakumearen arteko bikote harremana gainditu eta eredu ezberdinei lekua egitearen alde agertu ziren.

«Hiri jendetsuetan norberak sentitzen duen bakartasun beldurgarriak gidatzen gaitu gure ametsetako pare-pareko laguna gurea ez den sexuan bilatzera» Aleksandra Kollontairen hitzak dira horiek. Eta esaldi horrekin agurtu zituen maitasunaren inguruko hitzaldira hurbildutakoak.

info+

“La ruptura sentimental, del amor al duelo”, Say Lindell

“Más allá de las etiquetas”, Coral Herrera Gomez Txalaparta argitaletxea

infraganti

JON IRAZU

Ez dira bost urte lehen aldiz enborren gainera igo eta horiek ebakitzen hasi zenetik; apirilaren 27an, ordea, aizkoraren munduan «erreferente eta maisu» izan den Joxe Mari Olasagastiren kontra neurtuko ditu indarrak. Lasai dagoela dio zizurkildarrak eta egunak pasa ahala patxada bera mantentzea espero du, ahalik eta lanik hoberena egiteko.

Zizurkil Goiko plazan egin dugu hitzordua eta iritsi bezain laster hasi da jendea agurtzen. Ezagun bat gerturatu zaio eta zirt eta zart hasi zaio baserrian egiten den lanaz, iraganean eta gaur egun egiten denak duen aldeaz. «Alferrik lan asko egindakoak zarete zuek!», esan dio broman gazteak. Umoretsu joan da elkarrizketa, baina ezin amaitu azken denboran Irazuren bueltan gehien entzuten den gaia aipatu gabe, Joxe Mari Olasagasti handiaren egin duen apustua, hain zuzen ere.

Zizurkilgo aizkolariaren egutegian gorritz biribilduta dago apirilaren 27ko data, orduan erakutsi beharko baitu Tolosako zezen plazan egiten ari den esfortzuak fruituak eman dituen ala ez. Azken denboran, izan ere, buru-belarri ari da apustuari begira bere burua prestatzen. «As-tean hirutan gimnasioan aritzen naiz, eta beste hiru egunetan, berriz, aizkorarekin», azaldu du Irazuk.

Aizkora txiki-txikitatik jarraitu duen kirola den arren, ez zen orain bost urtera arte aizkora eskuan hartu eta enborraren gainean igo. «Herri txikietan beti izan ohi da herri kirolekiko afizio handiagoa; Joseba [Otaegi] ere aizkora hastek aukera gertuago sentiaraztea ekarri zuen», gogorarazi du. Probatu ez izanak urteak aurrera egin ahala sortuko liokeen damua izan zen, beraz, Irazu aizkora hastera animatu zuena: «San Ignazio egunean egingo ditut bost urte hasi nintzela aizkora entrenatzen, eta urtebetera parte hartu nuen lehen txapelketan», kontatu du. Esfortzua handia egin du

denbora honetan guztian, baina, argi du inguruan egokitu zaion taldeak zeresan handia izan duela orduz geroztik egin duen ibilbidean, «bakarrik oso zaila» baita aurrera egitea. Bernardo Labaka herritarra izan du beti alboan, eta Inazio Zubelzu irakasle lanetan.

Lehenengo jardun haiek ez dituz ahazten eta irribarrea sortzen zaio haiek gogora ekartzen dituenengan: «Lehenengoetan oso gaizki ikusten nuen nire burua; ez soilik lehen egunetan, denbora luzean aritu nintzen trakets samar», azaldu du. Gorputz aldetik jartzea kostatu zaiola gehien aitortu du, baina teknika aldetik ere lan handia egin behar du. «Teknikak zeresan handia du aizkora, bestela ezin da ulertu, Olasagastiren kasuan bezala, adina izanagatik gazte askoren parean aritzeko gaitasuna izatea», nabarmendu du zizurkildarrak.

ETXEAN SOSTENGUA

Etxean beti jaso izan du aizkolari ibilbidean jarraitzeko sostengua eta, besteak beste, eroso entrenatzeko txokoa ere prestatu diote. «Traktorea gordetzeko txabola genuen eta bertan argiak eta jarrita babesean entrenatzen naiz orain», azaldu du irribarrez. Onartzen du apustuaren bueltan larritzen direla etxean, eta horregatik egun hori pasatakoan larritasun guztiak ahaztaraziko dizkien itxura ematea espero duela.

Etxe ondoko txabola edota gimnasioan, aizkorari denbora asko eman behar izan dio, baina hura segidan hasi zitzaion, halaber, gozoak eskaintzen; izan ere, lehen txapelketan lan polita egin zuen eta bigarren, berriz, txapela jantzi

zuen. «Horrek motibazio handia ematen dizu entrenatzen eta ahalik eta gehien hobetzen jarraitzeko», onartu du zizurkildarrak.


IDOLOAREN KONTRA

Iaz Xabier Zalduarekin jokatu zuen apustua eta aise gailendu zitzaion. Orain Joxe Mari Olasagastirekin egin du apustua. Inorekin nor baino nor lehiatzeko grinaz mintzo da argi: «Zaila da inolako konpromisorik izan gabe prestatzen jarraitzea; apustuak lanean jarraitzeko motibazioa ematen dizu zalantzarik gabe eta txapelketak amaitzen direnetik berriz ere hasten diren arte sasoian egoteko aukera». Berezia izango da, ordea, jokatu duen apustua beretzat: «Azken batean Olasagasti niretzat idoloa izan da beti, aizkorari lotuta erreferentzia gisa hartu izan dudana norbait, eta berarekin neurtzeko aukera sekulakoa da niretzat».

Presiorik ez duela sentitzen aitortzen du eta bere desioa eguna gerturatzen doan heinean, lasaitasun hori mantentzeko gai izatea dela: «Egunak ez dit beldurrik ematen, baina apustuaren baitan sor daitekeen giroak larririk ez sortzea espero dut».

«Olasagasti niretzat idoloa izan da beti, aizkorari lotuta erreferentzia gisa hartu izan dudana norbait, eta berarekin neurtzeko aukera sekulakoa da»

«Zaila da inolako konpromisorik izan gabe prestatzen jarraitzea; apustuak lanean jarraitzeko motibazioa ematen dizu zalantzarik gabe»



Bistan denez, Arria Varen kontra orain hilabete Igeldoko aizkolariak jokatu zuen apustua gertutik aztertu zuen; baina «Arriak, eskuetan zuen arazoa dela eta, ezin izan zuen berea eman, eta ezin izan zen ikusi Olsagasti zenbateraino prestatua dagoen». Erreferentzia gisa lan erdira arte erakutsi zuen itxura hartu, eta «ondo ikusi» zuenez, entrenatzen jarraitzeko eta egun horretarako prestatzeko motibazioa handitu zaiola aitortu du. «Okerragoa litzateke jokatu berri duen apustuan Olsagastik oso itxura txarra eman izan balu; zer motibazioarekin jarraitu behar nuen entrenatzen?», galdegiten du.

Irazuk eramango ditu egurrak plazara, eta hori bere alde badu ere, Olsagastiren aurka ez du abantaila handi gisa hartzen:

«Bera maisua da eta nahiz eta probarik ez egin aurretik, egurra ebakitzen hasterako badaki zein aizkorarekin hasi behar duen, tankera ematen dio, maisua delako eta eskarmentu handia duelako», ohartarazi du.

Joango direnak plazatik gus-tura ateratzea du buruan eta, horregatik, Olsagastik eta biak ahalik eta lanik hoberena egitea espero du zinez; «horrekin konformatzen naiz». Ez du dirua zeinen alde jartzen den pentsatzen hasi nahi, «ez behintzat oraindik», baina ia-ia ezinezkoa da. Eserita gauden tabernan Olsagastiren aldeko apustua dago botata. Irri egiten du.

Jendea apustua bertatik bertara ikustera joango den esperantza du, egin dituzten gastuak erreku-pertzeko aukera emateaz gainera, herri kirol hau jen-

dearengana gerturatzeko aukera aparta izango litzatekeelako. Hala ere, onartzen du aizkora munduaren inguruan gazteen artean afizio handirik ez duela ikusten. «Ez da harritzekoa; gazteek beste kirol batzuk jarraitzen dituzte, besteak beste, ez delako aukera handirik izaten herri kirolen munduan sartu eta proba egiteko. Horrela zaila da zale-tasun handirik sortzea», nabarmendu du.

ATSEDEN TXIKIA

Apustuaren data pasata, arnas hartuko du, baina ez du atsedean handirik hartzeko aukerarik izango: ekainean Gipuzkoako txapelketa eta irailean Euskadikoa jokatu beharko ditu. Denboraldia amaitutakoan, orduan hartuko du sarriago lagunekin egoteko denbora, bai eta gustu-

Irazu Zizurkilgo
udaletxearen parean
dagoen dema plazan.
Andoni CANELLADA | ARGAZKI
PRESS

ko dituen beste hainbat gauza egiteko ere. «Sagardotegira joatea gustatzen zait, baina entrenamenduekin ez du ondo ezkontzen eta aurtengoagatik horrela izan beharko du», aitortu du aurpegitik irribarrerik galdu gabe.

Kirol hau gazteen artean eza-gutzera emateko komenigarria litzatekeela uste duen arren, jaien bueltan plazarik plaza erakustaldi askorik ez du egiten, besteak beste, maiz lanarekin uztartzea ez ziolako erraza suertatzen. «Azken batean, ni nire lanetik bizi naiz eta lan txanda aldatuta-edo moldatzen banaiz ere, erakustaldi bati baino gehiagori esan behar izan nion ezetz iaz», zehaztu du aizkolariak.

maider.eizmendi@gaur8.info

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Guangzhou

Urtarrilaren 28an ireki zituen atea eta dagoeneko itxi ditu. Guangzhou hirian gurasoek bertan utzitako haurrak zaintzeko zegoen zentroa bertan behera geratu da eskariari ezin erantzunda. Xu Jiuk, zentroaren arduradunak, esan du 262 ume utzi dituztela eta dituzten baliabideak ez direla nahikoa. Zentroan utzitako haur guztiek gaixotasunen bat zuten. Guangzhouko zentroan haurrak uzten saiatzen diren gurasoak zigortu egingo dira. Denera, 25 zentro daude Txinan.

> Isuriak

Ezagunak dira petrolio isuriek itsasoan zein lehorrean sor ditzaketen kalteak, baina horiei aurre egiteko erabiltzen diren tekniken arriskuak ere: «Ez da erraza eragindako perimetroan isuri berririk egon ez dadin lortzea, ezta garbiketa prozesua ere», diote adituek eta, horren aurrean, mikroorganismoak erabiltzea proposatu dute batzuek. «Itsasoko mikroorganismoek era naturalean egiten duten biodegradazio prozesuan egon daiteke gakoa», azaldu dute.

> Mowbay

Sarah Mowbayk bere alaba aurkitu du Facebook bidez hemeretzi urte geroago. Ingalaterrako Worcestershire konderrian bizi da Sarah eta adopzioan eman zuen Kayleigh Marie alaba egoera ekonomiko gogorrek bultzatuta. Ez da erraza izan. Hainbat saioaren ondoren Facebook-en alabaren izena jarri eta ehunka emaitza agertu zitzaizkion. Bilaketaren emaitza bakoitza banan-banan aztertu zuen eta Malcen-en bizi den 22 urteko Kayleigh Marie Watt aurkitu zuen.

> Berrerabilpena

Europar urtero milioika tona gorpil erabili pilatzen dira eta, birziklatze teknikak hobetzen ari badira ere, hondakin asko sortzen dute. Italiako enpresa batek gorpila osatzen duten elementu guztiak, baita metala ere, birziklatzeko teknika garatu du, natura errespetatuz gainera. «Fabrikazio prozesua egiten dugu, baina alderantzizko norabidean», adierazi dute. Kautxua eta metala bereizi eta bakoitzari bere trataera ematen diote, osagaiak %100ean berrerabiltzeko.

> Ospitalea

Maiatzean irekiko dute Israelgo iparraldeko Haifa hirian “lurrazpiko lehen ospitalea”, era guztietako arazoetatik babesteko diseinatuta dagoena. «Egiteko zaila eta garestia» izanik, azpiegitura apartakaleku bat da ere eta, «behar izanez gero», 72 ordutan ospitale bilakatzeko gaitasuna egongo litzateke, onkologia, dialisi, amatasuna eta bestelako hainbat zerbitzurekin. Aurreratu dutenez, autoentzatzat 1500 leku ditu eta, eraldatuta, 2000 gaixo har ditzake.



GUREGIPUZKOA.NET

ANTZARAK HIRIAN, USOENA IZAN OHI DEN JOKO ZELAIAN

Antzarak pasean Donostiako Askatasunaren etorbidean. Eta jendea inguruan, begira, tokiz kanpo dagoenari begiratzen zaion jakin-minarekin eta sinpatiarekin. Usoena izan ohi den joko zelaian, antzarak. Eta usoak, segur aski, jeloskor eta haserre, haiek dagoeneko paisaiaren parte bihurtu direlako hirietan eta inork ez dielako halako arretarik eskaintzen. **Vicente MARTIN. FOTOCAR FUN-TSA. KUTXA FOTOTEKA**



Unai
Gorrotxategi

Neutraltasunaren mugak

osasuna / geltokiak / komunikazioa

3 BEGIRADA:

Bidasoa ibaian marraztu diguten mugak modu askotara eragiten ditu. Teknologiaz edo komunikazioaz ari bagara, mugikorrean ikusten dugu eragin handiena. Alde batetik bestera zeharkatzeak roaming hitzaren esanahia ulertzera behartu gaitu. Roaming zerbitzuaren bitartez, telefono konpainiek beste estatuetatik konektatu edo deitzeko aukera ematen digute. Ordainean, ordea, bidesari zentzugabeak ordaintzen ditugu. Horrela, Bidasoa zeharkatzen dugunean, egiten ditugun deiak mugatzera eta Internetarako konexioa itzaltzera behartuta gaude. Bidesari horiekin bukatzeko, Europako Parlamentuko Industria Kontseiluak Connected Continent izeneko lege sortari bere babesa eskaini zion eta dagoeneko Europar Ganberak horietako proposamen batzuk bozkatu eta onartu ditu.

2015eko abenduaren 15a izango da neurri horiek aplikatzeko azken eguna. Berri pozgarria inondik inora, 2016tik aurrera Europar Batasuneko estatueta-rik bidaiatzean egiten ditugun deien gastuetan sorpresarik eramango ez dugulako. Gainera, Euskal Herriaren kasuan, muga txiki bat gainera kenduko dugu eta Iparraldetik Hegoaldera eta alderantziz mugitzen garenean, dei eta datu konexioek ez dute gastu gehigarri-rik izango.

Hurrengo lehia, Connected Continent lege proposamen guztien onarpena litzateke, proposamen horietako batzuek Interneteko neutraltasuna babestu nahi dutelako. Internet sarearen neutraltasunaz hitz egiten dugunean, azpiegitura fisikoek jarritako oztopoez gain, datuek mugitzeko duten askatasunaz ari gara. Hau da, bi ordenagailuren artean datuak inongo kontrol edo iragazkirik gabe mugitzeko eta bidaltzeko aukeraz. Neutraltasun hori hautsiko balitz telekomunikazio enpresek beren sareetatik atzi ditzakegun webgune eta zerbitzuak mugatu ahal izango dituzte.


Ezingo genituzke VoIP bezalako aplikazioak erabili, adibidez. VoIPak Internet bidez beste telefono eta ordenagailuekin audio bidez konektatzeko aukera

ematen du. Fitxategien trukea ahalbidetzen duten P2P sareak erabiltzeko zailtasunak izan genitzake, gainera, enpresa horiek apropos abiadura mantsotu edo zuzenean datuen garraioa debeka baitezakete.

Imajina dezagun Ane. Bere konexio arrunta ordainduta, nabigatu eta posta elektronikoa erabiltzeko aukera du. Aldiz, nabigazio horretan ez da sartzen Google aplikazioak erabiltzeko aukera, horretarako gehiago ordaindu behar baita. Beñatek, aldiz, premium konexio bat du eta konexio horretan Aneri ukatzen zaizkion zerbitzu guzti horiek eskaintzen dira: Google bilaketak, Skype erabiltzea edota P2P bidez fitxategiak elkartrukatzeko aukera.

Gaur egun, telefonia konpainia askok mugatzen dituzte P2P eta VoIP konexio-

ak. Konpainia batzuek konexio horiek egitea galarazten dute eta beste batzuek egiten den erabilpenaren arabera ko-bratzen digute. Internet sarearen neutraltasunak edozer motatako konexioak egitea ahalbidetuko luke, baina ez hori bakarrik. Besteak beste, neutraltasunak konexio guztien bideratze lehentasuna berdinduko luke. Konexio lehentasuna enpresa edo estatuek, beraien interesen arabera, hein batean molda dezakete. Lehentasuna interes ekonomiko edo politikoen arabera moldatuz, konexio bide onak eta txarrak dituzten erabiltzaileak edukiko genituzke. Estatu edo enpresa boteretsuenek konexio hobeak izango lituzkete, eta zerbitzu hobeak, informazioa azkarrago eskuratzeko aukera eta beste abantaila asko. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa dugu sare neutraltasuna bermatu eta defendatzea. •



Bi ordenagailuren artean datuak kontrolik gabe mugitzeko aukera da neutraltasuna.

GAUR8

1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com



4 04 05

9